



ALBOAN

# Erabakiak aldatu



## Eragiteko metodologia



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO




ELUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## ■ Hezkuntza baliabideak ALBOAN

...

25. Boluntariotzarako motibazioak gaur egun. (2011)
26. Nazioarteko boluntariotza, garapenari alternatibak sortzen. (2011)
27. Kulturartekotasuna, multikulturalismoa, boluntarioentzako erronka. (2011)
28. Nazioarteko boluntariotza esperientzia: kulturen eta pertsonen gurutzaketa, aukera edo gatazka? (2011)
29. Bide-laguntza nazioarteko boluntariotza esperientzetan. (2011)
30. Erabakiak aldatu.  
Eragiteko metodologia. (2011)

# Erabakiak aldatu



Eragiteko metodologia

Argitaratzailea:

**ALBOAN**

Aita Lojendio kalea 2, 2. • 48008 Bilbao

Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938

alboanbi@alboan.org

Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308

alboanna@alboan.org

Erronda kalea, 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia

Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267

alboangi@alboan.org

Estenaga Apezpikua, 1 • 01002 Gasteiz

Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676

alboanar@alboan.org

[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

Egilea: **ALBOAN**

Data: Azaroa 2011

Itzulpena: Bakun

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: Bi-3010-2011

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.



# Aurkibidea

Aurkezpena	5
Ibilbiderako proposamena	11
<b>1. urratsa:</b> Jendea zeureganatu eta motibatu	15
<b>2. urratsa:</b> Zeure neurrian egin	25
<b>3. urratsa:</b> Abian	37
<b>4. urratsa:</b> Eragiozu buruari	49
<b>5. urratsa:</b> Kontatu, hedatu eta proposatu	59
<b>6. urratsa:</b> Zer lortu dugu?	73
<b>7. urratsa:</b> Kontatu zeure esperientzia eta jarraitu jendea zeureganatzen eta motibatzen	79





# *Aurkezpena*





Sormena eta pazientzia erabiliz, eta lanari erantsiko zaion jendearen laguntzaz, eskuartean duzuen proposamena aldaketarako tresna izan daiteke: zeuen inguruan nahiz beste errealitate batzuetan, pertsonen bizitza hobetuko duen aldaketa.

Zero Pobrezia kanpainak berak adierazi zigunez, “Pobrezia erazteko gai den lehen belaunaldia gara”. Egindako mobilizazioek (Irakeko Gerraren aurkakoak, Maiatzaren 15ekoak) erakutsi digute jende asko mobilizatu eta aritzen dela errealitatea eraldatzeko. Toki-mailako talde askok urteak daramatzate sentsibilizazio- eta kontzientziazio-lanetan, toki- eta mundu-mailako egiturak eraldatzeko asmoz.

goeko hamarkadan zehar izan ziren konferentzia eta gailurren bidez, aurreko mendearen amaieran mundu hobe bat sortzeko agenda irudikatu zen. Konferentzia horien foro paraleloetan antolatutako kolektiboek azken erabakietan eragitea lortu zuten, agendan hainbat gai txertatu eta erabaki zehatz batzuk hartu zirelako euren jarduerari esker. Parte hartu zuten erakunde eta mugimenduen artean, hainbat kolektibok akordio horien jarraipena egiteko erronka baneratu zuten; alde batetik, egindako aurrerakuntzak ospatzeko eta, beste alde batetik, hartutako erabakiak betetzeko konpromiso-eza salatzen. 2000. urteko Milurtekoaren Adierazpenak asko murriztu zuen aurreko gailurretako agenda baina, aldi berean, borondate asko bildu zituen 2015ean Milurtekoaren Garapen Helburuen inguruan.

Mende berriaren hasieran, Seattleko mobilizazioak eta *Bestelako mundu bat posible da* goiburuekin antolatutako foro altermundialistak ikusi genituen. Bestelako mundu hori posible egiteko esperientzia zehatzak ezagutarazi eta hedatzeko konpromisoari heldu zitzaion beraietan. Hain zuzen, foro horien harira konturatu gara munduan zehar pertsona asko ari direla proposamen zehatz eta desberdinak gauzatzen. Aukera asko ditugu garatzeko. Horietako bakoitza eremu zehatzera egokitu beharra dago, baina funtsezko arazoak, ordea, berberak dira errealitate guztietan: desberdintasun ekonomikoak, kultura alorrekoak, generoari lotutakoak; ingurumenarekiko errespetu- eta oreka-falta; gerra; merkatuaren botere “ahalguztiduna”; politikak subiranotasuna galdu izana...

Pobrezia  
erazteko gai  
den lehen  
belaunaldia  
gara.



**Pobreziaren  
aurkako eta  
genero-  
berdintasunaren  
aldeko  
politikak  
defendatu eta  
monitorizatu.**

Azken garaian, mobilizazio garrantzitsuetan bildu da jendea: euren etorkizunean eragiten duten erabakiak hartzeko parte-hartze handiagoa eta ekonomiak eta merkatuak agindutako interesek garrantzia gutxiago izatea aldarrikatzen dute. Eslovakiatik hasi eta Euskal Herriraino, Indian eta Mexikon, eta beste hainbat lekutan, pertsonak eta kolektiboek garatutako esperientziak inspiratu egiten gaituzte, eta eman beharreko aldaketa irudikatzen duen korrante horri gehitzeko deia egiten digute.

Aldaketa handia eman da azken hamarkadetan, baina aldaketa horrek talde eta komunitate gehiagoren parte-hartzea eskatzen du. Aldaketa hori posiblea da eta pertsonen eta ingurunearen eskubideak aitortzea dakar. Aldaketa horrek gure parte-hartzea eskatzen du, pertsona eta hiritarren kolektibo gisa, pertsona guztiak duintasunean biziko diren mundu bat eraikitzeko eskubidea eta ardura baitugu.

Ondoren aurkeztuko dizuegun materialak antolatutako taldeen lana bultzatzeko metodologia jasotzen du. Toki-mailatik abiatuta, zuen ingurunean eta mundu-mailan aldarrikatzen dugun aldaketa posible egiten laguntzeko egitura bat, baliabideak, erreferentziak eta estrategiak eskaintzea da asmoa.

Dagoeneko ibilbide luzea duen mugimendu zabal baten baitan txertatzen da gure proposamena: Social Watch. Oinarrizko erakundeen nazioarteko sare horrek pobreziaren aurkako eta genero-berdintasunaren aldeko politikak defendatu eta monitorizatzen ditu. Gaur egun, kontinente guztietako 70 herrialdetan baino gehiagotan dago. Kopenhageko Gizarte Garapenari buruzko Gailurrean, 1995eko Emakumeen Nazioarteko Laugarren Konferentzian eta 2000. urtean New Yorken izandako Milurtekoaren Gailurrean gobernuek hartutako konpromisoak nola betetzen diren zaintzen du sareak, eta arreta berezia egiten die garapenari, gizarte-justiziarri, generoari eta, berrikitan, klima-aldaketari lotutako gaiei. Nazio-mailako erakunde guztiek jasotako informazioan oinarrituz, sareak txosten bat argitaratzen du urtero, herrialdeka konpromisoak nola betetzen diren azaltzeko.

Erakunde horrek egindako lana erreferentzia-esparrutzat harturik, ALBOANek metodologia bat proposatzen dizue, ikus dezazuen zuen herriak, auzoak, udalerrriak edo ikastetxeak gizarte-



garapenari laguntzen diola, ZUEN ingurunean ez ezik, batzuetan, beste ingurune eta errealitate batzuetan ere.

Material hau eskainiz, gure asmoa da erakundeak toki-mailako politika publikoen jarraipena egitera gonbidatzea eta horretarako pistak eta lan-jarraibideak eskaintzea. **ALBOANek**, bereziki, gizarte- eta elkartasun-politiken jarraipena sustatu nahi du, zuen ingurunean nahiz beste ingurune batzuetan. Lan hori burutzeko, metodologia hau eta webgunea ([www.alboan.org/tomalosdatos](http://www.alboan.org/tomalosdatos)) eskaintzen diegu nahi duten talde eta kolektibo guztiei, partekatze eta laguntzarako gune bezala erabil dezaten.

Proposamen honek gizarte-garapena du ardatz eta, hortik abiatuta, gonbidapena egiten dizue kontzeptu horrek zer adierazten dizuen berriz pentsatzera, zuen errealitatean nola gauzatzen den ikustera, eta beste pertsona eta talde batzuekin batera, errealitate hori konpromiso eta hitzemande ofizialek adostutakora hurbilarazten laguntzera.

Halatan, zeregin zehatzak eskatzen dizkizue: zuen ingurunea aztertu eta ezagutzea; pertsona guztientzako duintasuna eta ingurumenarekiko errespetua gauzatzeko zer hobetu behar den baloratzea; proposamenak egitea; eragitea; jarraipena egitea; eta zeuen artean ez ezik, beste pertsona talde batzuen artean ere horren berri ematea.

Metodologia hau praktikara jauzi egiteko gonbidapena baino ez da: beste pertsona batzuekin hitz egin, elkarrekin eta, datu eta errealitate zehatzetan oinarrituz, zuen ingurunea bidezkoagoa eta pertsonentzat duinagoa bihurtzeko aritzea nahi dugu. Izan ere, nahi ditugun aldaketa orokor guztiak burutzeko, toki-mailako aldaketak ere ezinbestekoak direlako uste osoa dugu. Tokiko aldaketek erakusten dute aldaketa hori posible dela, pentsamendu eta jarduera kolektiboak sustatzen dutela, eta aldaketa orokorraren hazi bihurtzen direla.


Elkarrizketan  
aritzeko,  
elkarri  
eragiteko eta  
praktikara  
pasatzeko  
gonbidapena.







# *Ibilbiderako proposamena*





Ondorenean, bere ingurunean eragin politikoa izateko eta mobilizatzeko ekintza bat planifikatzen hasi nahi duen talde batentzako ibilbide-proposamen bat aurkeztuko dizuegu.

Gizarte-eragina aipatzen dugunean, zera esan nahi dugu: gizarte-talde eta kolektiboek egiten duten jarduera, batik bat gizarte-politiketan erabakitzeko ahalmena duten eragile, erakunde edota instituzioetan eragiteko asmoarekin. Eragin horrek hainbat osagai ditu: eragin publikoaz arituko gara, iritzi publikoaren pertzepzioak eta erabakiak aldarazi nahi direnean; eragin politikoaz arituko gara, ordea, erakunde publiko zein pribatuetan boterea dutelako, garrantzizkoak diren eragileetan eragin nahi dugunean.

Aurkezten dizuegun proposamenean irekita uzten dugu eragin publikoa nahiz politikoa garatzeko aukera. Ekintza baten bidez zein alderditan jarri nahi duzuen indarra erabakitzea taldearen ardura eta borondatea da.

Nolanahi ere, aurkezten dizuegun ibilbidearekin gertatzen den bezala, zeuek baloratu behar duzue nondik hasi eta zein eragileri zuzenduko diozuen ekintza.

Hasteko, ohikoena izaten den une eta pauso bat aipatuko dugu: taldea geureganatzea, eta proposamenari gogoz erants dakion lortzea. Nolanahi ere, sarritan, errealitatea ez da izaten uste bezain lineala, eta kasu batzuetan gerta daiteke aurretik beste pauso bat eman behar izatea, edo ezin garatzea ibilbide osoa era jarraituan, guk aurkezten dizuegun bezala.

Era berean, prozesuaren hasieran, zenbat denbora, erritmo eta baliabide duzuen baloratu beharko duzue eta, azterketa horren ondorioz, pauso bakoitzari eskainiko diozuen lan-maila zehaztu beharko duzue.

Beraz, aurkezten dugun ibilbidea espiral itxurakoa da, gure estrategietan eta eragiteko proposamenetan aurrera egin eta sakontzen joateko asmoz. Talde bakoitzak, bere ingurunea eta errealitatea ezagututa, talde eta inguruneari egokitu beharko dio proposamena; zer pausotan hasi eta zer pauso egingo dituen erabaki beharko du.

**Eragin politikoa izateko eta mobilizatzeko ekintza bat planifikatzen hasi nahi duen ibilbide-proposamen bat.**





**4. urratsa:**  
Eragiozu buruari



**7. urratsa:**  
Kontatu zeure esperientzia eta jarraitu jendea zeureganatzen eta motibatzen



**1. urratsa:**  
Jendea zeureganatu eta motibatu



**2. urratsa:**  
Zeure neurrian egin



**3. urratsa:**  
Abian




**5. urratsa:**  
Kontatu, hedatu eta proposatu



**6. urratsa:**  
Zer lortu dugu?

1. urratsa

*Jendea zeureganatu  
eta motibatu*





## Helburuak

- ✓ Taldean proposamenarekiko interesa edo jakinmina sortzea.
- ✓ Proposamena argi, labur, era atseginean eta erakargarrian aurkeztea.
- ✓ Ibilbide osoaren berri ematea, taldeak beregana dezan eta erabaki dezan zer urratsetan gehituko zaion ibilbideari.
- ✓ Taldeko pertsona-kopuru esanguratsua proposamenari gehi dakion lortzea.

## Aurkezpena


Sentsibilizazio- eta motibazio-jardunaren funtsezko eginkizunetako bat zera da: proposamenean parte hartzea nahi duzuen pertsonak maitemintzea eta geureganatzea. Garrantzitsua da jendeari proposamena jakinarazteko denbora hartzea, eta zeregin horretarako ikusizko elementuak, elementu erakargarriak erabiltzea.

Koherenziagatik eta une horretan parte-hartzea sustatzeko, garrantzitsua da zuen kolektiboko edo beste kolektibo batzuetako pertsonak proposamenaren protagonista izatera gonbidatzea, proposamen horrek euren ingurunea nahiz beste pertsona batzuen hobetzen lagun dezakeelako.

Euren arreta jaso ostean, argi eduki behar duzue zertara eta zertarako gonbidatzen dituzuen, zer dakarren euren ekintzak. Kontuan hartu behar duzue parte-hartzeko hainbat maila egon daitezkeela. Zaila izan ohi da jendeak parte-hartzea, baina egoki baloratu behar duzue jendearen edo kolektiboen interesa jasotzea, aldian aldiko laguntza, baliabideak edo informazioa eskain dezaketelako.

Etorriko den zerbaiten edo dagoeneko abian den zerbaiten inguruan zeuen kolektiboko edo inguruko jendearen interesa edo jakinmina piztea da funtsezko helburua. Transmititu behar duzue

Etorriko den zerbaiten edo dagoeneko abian den zerbaiten inguruan zeuen kolektiboko edo inguruko jendearen interesa edo jakinmina piztea da funtsezko helburua.



pertsona guztiok har dezakegula parte gure gobernuak hartzen dituzten erabakietan, erabaki horiek gure bizitzetan eragina dutelako. Ideia eta ardura hori txertatu behar duzue jendearen artean.


### Baliabideak

Berdin dio zer baliabide erabiliko dituzuen. Aurretiaz adierazi duzuen bezala, garrantzitsuena da goinoa sortzea eta eztabaida eragingo duten hasierako galdera batzuk planteatzea, hala nola:

- ✓ Zer arazo daude gure inguruan?
- ✓ Nire ustez, zer premia daude gure herrian erantzunik jaso gabe?
- ✓ Ingurune honetan, pertsona guztiok ditugu eskubide eta betebeharrak berdinak?
- ✓ Zer ardura dut nik, herritar gisa?
- ✓ Zer politika aldatu beharko litzateke gure inguruan?
- ✓ Badago parte-hartzeko biderik, egoera hori aldarazteko?
- ✓ Nola ikusten ditugu gure tokiko erakunde publikoak?

Galdera orokor horietatik abiatuta, zeuen ingurunerako esanguratsuen diren galderak sortu behar dituzue. Horretarako, badaude funtsezko gomendio batzuk, hainbat urratsetan errepikatuko ditugunak: aztertu nahi dituzuen gaiak proiektu edo errealitate zehatzen bidez, historia pertsonalen bidez... bistaratzea komeni da; umorea elementu baliagarria da.

Nahi duzuen gaia edo eztabaida kalera eramateko hainbat baliabide daude:





Taldearentzat edo inguruarentzat garrantzitsuak diren lekuetan txartelak👉 edo panelak👉 jar ditzakezue; irratiko iragarki laburrak👉 egin ditzakezue tokiko hedabideetan; grafitiak👉 egin ditzakezue; blog👉 bat sor dezakezue...

Antolakunde barruan edo herrian inkesta👉 bat egin eta emaitzak erakuts ditzakezue; pertsona batzuek emandako proposamen edo erantzunekin bideoa grabatu👉 eta Interneten, elkartearen blog-ean edo herriko telebistan edo irratian jar dezakezue...

Komenigarria da, gero, pertsona horiek gaia aurkeztuko den topaketa👉, bilkura edo hitzaldi batera gonbidatzea. Beste pertsona eta kolektibo batzuk ere gonbidatuko dituzue bertara.

### Aholkuak

Herriko edo auzoko beste talde edo erakunde batzuei laguntza eska diezaiekezue, euren ezagutza eman diezazuekete eta. Ez da beharrezkoa den-dena zeuek egitea.

Pertsonen arreta eragin eta aldarte egokia eskaintzeko, umorea edo ustekabea baliabide egokiak izan daitezke.

Ez duzue une hori gutxietsi behar, gainerako jarduera norabide egokian kokatzeko oso garrantzitsua izan daiteke eta.

Umorea edo  
ustekabea  
baliabide  
egokiak izan  
daitezke.





## Adibide batzuk

### ISFera

Ingeniería Sin Fronteras ApDren (Mugarik Gabeko Ingeniaritza) Ziberpartaidetzarako Plataforma. Online plataforma bat da, software askeko tresna baten bidez (DRUPAL) eraikia, informazioa, ideiak eta baliabideak partekatuz, erakundeetan partehartzea sustatzeko eta gizarte-oinarriekin garden jokatzeko. ISFera bazkideei, boluntarioei eta erakundeak kontratatutako langileei zuzenduta dago soil-soilik. Erakundeetan kide berri bat sartzen denean, plataforman izena emateko gonbidapena egiten zaio.


Tresna horren asmoa da gizarte-oinarriaren eta erakundearen artean norabide bikoitzeko komunikazioa sustatzea, boluntarioekin komunikazio arina izateko tresna bihurtzea, erakundea ari den sektoreari buruzko informazioa partekatzea, elkar hobeto eza-gutzea eta, azkenik, lan-tresna eta agiri-

gordetegia izatea boluntarioak antolatzen diren sektoreen artean.

Tresna horretan dauden foroak dagoeneko erabili dira erakundearen alderdi estrategikoei buruz eztabaidatzeko; adibidez, balioei buruz, esparru estrategikoei buruz, etab. Lehenetsuna zera da: tresna teknikoki hobetzea, errazago erabili ahal izateko eta informazioa eskuragarri egoteko. Izan ere, zenbat eta erabilerrazagoa izan, orduan eta gehiago erabiliko da.

Dinamizazioari dagokionez, komunikazio-sailak hilaibetekari bat kaleratu du ISFeraren edukiekin, erakundearen barne-komunikaziorako buletina bihurtzeko asmoz.

<http://isfapd.org/isfera>




## Las Cabezas de San Juango banaketa

Las Cabezas de San Juango Udalak jakinarazten du:

Las Cabezas de San Juango Udalak jakinarazten du:

Banaketa heldu dela,  
Aurrekontuaren Banaketa,  
Parte-hartzearen Banaketa,  
Arduren Banaketa.  
Parte-hartze freskoa, jaso berria!  
Aprobetxa ezazu, eskuartetik kendu aurretik!  
Parte hartu eta eraiki zeuon historia  
Esaguzu zein den zure kontua,  
Sar zaitetz Banaketan.  
Kontuak banatzeko Banaketa.  
Zatozte, María, Pepe eta Soledad!  
Herrira heldu da kalitatearen Banaketa.  
(auzoak dinamizatzeko erabili den pegoia)




1995 aldera, Las Cabezas de San Juango Udala (Sevilla) parte-hartzearen inguruko gaiekin arduratzen hasi zen, eta auzoetako batzarrak antolatu zituen herritarren iritzia, aukerak eta abarrekoak jasotzeko.

1999ko ekainean, herritarren parte-hartzea lantzeko bestelako metodologia

bat jarri nahi izan zuten indarrean. Ekintza Parte-hartzaileen Ikerketa alorreko adituekin bat kontratatu zuten eta Banaketa izeneko proiektua jarri zuten abian.

Prozesuaren gizarte-irudia eraikitzeko, "La Fiambrera Obrera" arte-taldearen laguntza jaso zuten, eta talde horrek sortu



zuen Banaketaren irudia. Irudian, txerria eta txerrikiak agertzen dira. Lehen deialdi horretan, bideo bat egin zen, auzo eta herrixka bakoitzean eztabaida abian jartzeko. Bideoaren nahiz Banaketaren irudiaren bidez, informazio hutsean geldituko ez zen mezua transmititu nahi zen. Herritarrek

galdera berriak egitera gonbidatu nahi zizuten, prozesuak irekita jarrai zezan eta herritarrek estrategiak egiteko etengabeko lanean inplika zitezten, jarduera horri beharrezkoa delako ustean.

Bilatu informazioa Interneten!

## Klimaren aldeko ekintzaileak

### Greenpeace


“Klimaren aldeko ekintzaileak” kanpainaren asmoa zera da: agerian jartzea ezinbestekoa dela aitzindari politikoei klima-aldaketaren aldeko ekintzak egiteko konpromisoak hartzea; izan ere, herritarrek, eskura askoz ere tresna gutxiago izanik eta nazioarte-mailako erabaki-organoetan egon gabe ere, horixe egiten dute.

Horretarako, Greenpeaceko bi ekintzailearen adibidea hartu zen: aste batzuetan zehar, lehen pertsonan kontatu zuten Bartzelonan izandako Klimari buruzko Gailurrean egin

zizuten jarduerak. Aldi berean, baina, bi kideen profil pertsonalagoa ere eskaini, eta planetaren defentsan borrokari ekiteko zer motibazio zeuzkaten azaldu zuten.

“Aldeko ekintzaile” bihurtzeko izena emateko eskatzen da webgunean, baina ez da argi zehazten zer den kontzeptu hori, edo zer laguntza eskatuko zaien.

Proiektua garatu ahala, izena eman duten pertsonari hainbat ekimen helarazi zaizkie, eta bide ugari erabiliz (egunkarietara eskuitzak idaztea, sms-ak, ziberrekintzak...), jardutera bultzatu dituzte.



Kasu honetan, ideia ez da laguntza puntuala eskatzea eta bai, ordea, hasiera batean zer izango den ez dakiten zerbaitetan sartzeko prest dagoen jendea bilatzea.

Izen-zerrenda osatu ostean, egunerokotasun politikoak eta Greenpeaceren premiek

aginduko dute zer eskaera egingo zaien kanpaina aurrera eramateko. Mobilizazio puntualaren eta ekintzailatza egonkorren arteko erdibideko eredia da.

[www.activistasporelclima.com](http://www.activistasporelclima.com)

## Paperezko irudiak abian

Zuen taldearen edo herriaren arreta erakartzeko, gauza erraz-erraza proposatzen dizuegu: paperezko irudiak egitea. Igorri nahi duzuen mezua paperezko irudien barrualdean edo kanpoaldean idatz dezakezue.

Zuen herrian jende gehien dabilen lekua paperezko irudiz betetzea proposatzen

dugu. Irudi horien barruan, berriz, igorri nahi duzuen mezua: blog baten bidez adierazteko deia, batzar batera joateko deialdia, edo zuek egokien ikusten duzuen beste edozein mezu.

Gure web orrian irudi horiek nola egin azaltzen duten bideoak daukazue.


[www.alboan.org/tomalosdatos](http://www.alboan.org/tomalosdatos)





2. urratsa

*Zeure neurrian egin*







## Helburuak

- ✓ Interesa piztuko duten gaiak zehaztu eta definitzea. Gure proposamenean: gizarte-garapena, berdintasuna eta iraunkortasuna.
- ✓ Zuen eraginaren helburu izango diren egoerak eta eremuak identifikatzea.
- ✓ Zer alderdi zehatzetan arituko zareten finkatzea, eta adierazle/egoerak identifikatzea.
- ✓ Arazo horiek orokortasunetik herriko kezka eta egoeretara eramatea.

## Aurkezpena


Aurreko fasean animatu duzuen jendearekin batera pentsatzeko unea da. Lehen urrats horretan sortu litezkeen mezuak, ideiak eta balizko aliantzak hartuko dituzue kontuan.

Une honetan, elkarrekin eztabaidatu eta ardurak eta nahiak alderdi eta puntu zehatzetan gauzatu behar dituzue. Askotan ez da izaten erraza baina, behin egin ondoren, emaitza guztiz pozgarria izaten da.

Proposamen honetan gizarte-garapenaren, desberdintasunaren eta iraunkortasunaren inguruan aritzea proposatuko dizuegu, baina zuen intereseko beste gairen batera ere eraman dezakezue. Zuen taldearen interesen arabera, gai hauetako bat aukera dezakezue, edota interesgarria deritzozuen besteren baten alde egin dezakezue.

Beste kolektibo edo pertsona batzuek aurretiaz gai horren inguruan zer egin duten jakitea interesgarria da. Gizarte-garapena zehazteko hainbat proposamen erantsiko dizkizuegu hemen. Horrekin batera, zuen errealitatean eta beste errealitate batzuetan nahi zenuketen bilakaera adosteko oinarritzat erabil zenitzaketen termino batzuk ere aipatuko ditugu.


**Ardurak eta nahiak alderdi eta puntu zehatzetan gauzatu behar dituzue.**




Zuen errealitaterako zer gizarte-garapen nahi duzuen zehazteko honako definizio hauek izan daitezke abiapuntua.

### Baliabideak

Hasieran adierazi dugun bezala, metodologia taldeari egokitu beharko zaio. Adibidez, lehenik eta behin definizio bat edo beraren osagai zehatzak adosten saiatuko zarete eta, ondoren, azterketarako definizio bat eta kategoriak edo adierazle propioak sortuko dituzue.

Ondoren, prozesua abian jartzeko jarduera pare bat azalduko dizkizuegu. Hasteko, scrabble  jokoaren bidez taldean ideia-zaparrada bat egitea proposatzen dizuegu. Garapena eta gizartea hitza gurutzatuta jarriko dituzue, irudian agertzen diren bezala, eta gizarte-garapenari lotutako hitzak botatzeko esango diozue taldeari. Sortu diren hitzak erabiliz, gizarte-garapenari buruzko definizio bat pentsatu beharko duzue.



Beste proposamen bat, aurrekoaren osagarria izan daitekeena, zera da: gizarte-garapenari buruzko definizio  batzuk banatzea, zuen errealitaterako zer gizarte-garapen nahi duzuen zehazteko. Honako definizio hauek izan daitezke abiapuntua.




**Gizarte-garapena** funtsezko elementua da mundu osoko pertsonen premien eta asmoetan, eta gobernuen eta gizarte zibileko sektore guztien arduetan. Adierazten dugu, ekonomian nahiz gizartean, pertsonen euren gaitasunak, baliabideak eta aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzera bideratutako politikak eta inbertsioak direla produktiboenak. Aitortzen dugu ezin dela gizarte- eta ekonomia-garapen iraunkorrik lortu emakumeak erabateko parte-hartzerik ez badu; orobat aitortzen dugu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta ekitatea lehenetasuna dela nazioarteko komunitatearentzat eta, beraz, gizarte- eta ekonomia-garapenean funtsezko elementua izan behar duela.


Gizarte Garapenari buruzko Gailurra, Kopenhage, 1995

**Gizarte-garapena** gizarte baten giza eta gizarte-kapitalaren garapenari lotuta dago. Gizarte bateko norbanakoen, taldeen eta erakundeen arteko harremanean bilakaera edo aldaketa positiboa eskatzen du. Batez ere, Giza eta Ekonomia Garapena eskatzen du. Gizarte-ongizatea da haren etorkizunerako proiektua.

Wikipediaren definizioa (gaztelaniaz)



Maslowk zioen bost oinarritzko premia: premia fisikoak; segurtasuna; maitasuna; eta garapen pertsonala.




**Gizarte-garapena** ekonomiaren profila aldatzeko prozesua da, hazkundearen onuren eta nazio-aberastasunen zati esanguratsu bat gizarte-sektoreetara bideratzeko. Gizarte-ongizatearen hobekuntza-prozesu etengabea da. Horretarako, diru-sarreren banaketa ekitatiboa egin eta pobrezia erazi behar da eta, horri esker, herritarren elikaduran, hezkuntzan, osasunean, etxebizitzan, ingurumenean eta justizian, hobekuntza-tasak gora egingo duela antzemango da.

Definicion.org

Bestelako ikuspegi batzuk daude gai horri heltzeko. Maslowk lehen aldiz aurkeztu eta geroago beste pertsona askok osatu duten **oinarritzko premien ikuspegia** da horietako bat. Maslowk zioen bost oinarritzko premia bete behar direla: premia fisikoak (janaria, arropa, etxebizitza, ura eta osasuna); segurtasuna eta babesa; maitasuna eta taldean tarteko sentitzea; duintasuna; eta garapen pertsonala. Oinarri hori hartuta has zaitezke lanean: ea zer funtsezko alderditan zehatz ditzakeziren premia horiek, edota eransteke zerbait bururatzeko ote zaizuen. Interneten bibliografia eta informazio asko dago lan horretan laguntzeko eta bideratzeko.

**Ongi bizitzea** kontzeptua ere lagungarri izan dakizueke. Kontzeptu hori aimara eta kitxua herrietatik datorkigu. Gaur egun, Ekuadorreko eta Boliviako Konstituzioetan agertzen da, eta ezinbesteko gutxienekoak lortu eta bermatzea du helburu: justua baina nahikoa herritarrak xehe eta apal baina duintasunez eta zoriontsu bizi daitezen. Proposamen horrek Amalurreakiko oreka eta herri indigenetan berarekiko duten jakituria zaharra aldarrikatzen ditu. Maila xeheko garapenaren, garapen iraunkorraren, jasangarriagoaren eta komunitarioaren alde egiten du, pertsona guztientzako bizitza duina eta planetaren iraupena bermatzen laguntzeko.

Aurretik aurkezturiko terminoak baliagarriak izan daitezke esparru orokorra zehazteko baina, definizioaz gain, landu egin beharko duzue zer alderdi edo osagai diren funtsezkoak gizarte-garapenean, eta zer alderdiri ekin behar diozuen zuen tokiko errealitatean.



Material honekin batera, poster-bilduma bat egin dugu, gizarte-garapenaren eta beraren osagaien gaia lantzeko baliagarria izan daitekeena. Azkenean, zuen proposamen propioa egiteko gonbidapena luzatzen dizuete posterrek.

Sei poster horiek honako logika honen arabera daude pentsatuta:



**Poster: Garapen bat edo garapen asko?**

Lehenik eta behin, munduarentzat eta zuen inguruarentzat zer garapen-mota nahi duzuen galdetuko dizuete.



**Poster: Eskubideak bai baina ez dira gauzatzen!**

Gero, eskubideak aitortu eta gizarte-garapenaren inguruko konpromisoak hartzea ekarri duten konbentzio eta konferentzien inguruan hausnartuko dugu. Errealitateak erakusten digu eten handia dagoela teoriaren edo paperean idatzitako konpromisoen artean, eta benetan gertatzen denaren artean.





**Poster: Zer gizarte-garapen**

Social Watch-ek planteatzen dituen bi indizeak aurkeztuko ditugu: oinarrizko gaitasunen indizea, eta genero-ekitatearen indizea. Indize horiek hezkuntzari, osasunari, berdintasunari eta ingurumen-orekari lotutako informazioa biltzen dute.




**Poster: Eta zure errealitatean, zer gizarte-garapen?**


Bertan, hausnartzeko gonbidapena egingo da, ea zer elementu landu nahi edo behar zenituzketen zuen tokiko ingurunean gizarte-garapena ahalbidetzeko.



**Poster: Gizatasunaren test-a**

Test horrek planteatzen du ea proposatzen duzuen gizarte-garapena egingarria eta nahigarria ote den gizateria osoarentzat, baztertuen dauden kolektiboentzat, eta zuen planetaren orekarako.





### Poster: Gizarte-garapen: gure proposamena


Azken posterrak zeuen inguruan gizarte-garapenari buruz adostu duzuen proposamena iruditan eta testutan gauzatzera gonbidatuko gaitu. Azken irudi hori ondorengo ekintzetan erabil zenezaketen.

Hasiera batean, gizarte-garapenaren gaiaren inguruan landu, sakondu eta zehazteko balio dezakete poster horiek, eta geroago, egoitza girotu eta ekintzak eta proposamenak zergatik egiten dituzuen gogorarazteko ere balioko dute.

Posterrekin lan egiteko bi modu proposatuko dizkizuegu. Bata zera da: talde bakoitzari poster bat banatzea 🗺️ eta gero eskatzea historia bat edo gizarte-garapenerako proposamen bat egin dezala. Sortzen diren elementuekin gizarte-garapenaren osagaietarako lehen hurbilpen bat egin dezakezue. Beste aukera zera da: talde bakoitzari sei posterrak ematea 🗺️, goiburuak estalita, eta museoan egongo bazinate bezala azal ditzatela eskatzea. Taldeak erakusketaren koordinatzailearen lana egin behar du: posterrak antolatu, egileak adierazi nahi zuena azaldu, eta bakoitzerako izenburu bat proposatu behar du. Aurkezpenen ondoren, edukia landuko duzue: gizarte-garapenaren inguruan zer iradoki dizueten, zuen ingurunean funtsezko alderdiak zein diren... Eta, azken momentuan, jatorrizko izenburuak azaleraz zenitzakete, talde bakoitzak aurkeztu duenaz gain, beste ezer ekartzen dizueten hausnartzeko.

Toki-mailan gizarte-garapenaz zer ulertzen duzuen zehaztu ondoren, zer alderdiri buruzko informazioa aurkitu edo aztertu nahi duzuen erabaki eta adierazle posible batzuk landu beharko dituzue, hurrengo urratsera jo baino lehenago.

Errealitate  
hori hainbat  
kolektiboren  
begietatik  
ikusten  
saiatzea.



## Aztertu nahi zenituzketen adierazle edo irizpideak identifikatzea.

Errealitateari begiratzen lagun diezazuekeen beste elementu bat zera da: errealitate hori hainbat kolektiboren begietatik ikusten saiatzea. Zentzu horretan, pertsona bakoitzak kolektibo bat ordezkari lezake 🙌. Egokia litzateke kolektiboa ordezkari duten osagarrien bidez girotzearol horiek (zapiak, txapelak...), “haien azalean” sartzen laguntzeko. Bestela, publiko-xedea edo komunitate hori erakusten duen argazki bat jar dezakezue. Pertsona bakoitzari eskatuko diozue bi minutuz historia labur bat aurkezteko, lehen pertsonan, kanpainaren gaiari buruz pertsona edo talde horrek zer sentimendu dituen adieraziz. Gainerako pertsonak galderak egin diezazkiokete: zergatik sentitzen den horrela, nola konpon litekeen arazoa, nola gonbida lezaketen kanpainan parte hartzera, eta zein arrazoi duten parte ez hartzeko.

### Aholkuak

Une garrantzitsua da hori, eta pertsona guztien gizarte-garapenerako funtsezko elementuei buruz mugarik gabe hausnartzea proposatzen dugu. Geroago, zeuen inguruko egoerari emango diozue lehentasuna, ea zer alderditan sakondu behar duzuen bertan. Zalantzarik gabe, gai askok piztuko dute zuen interesa, baina komenigarria da alderdi zehatz eta espezifikoekin hasi eta, proposamena finkatu eta informazioa non jaso ikasten duzuen neurrian, azterketa-esparruan aurrera egitea...

Aztertu nahi zenituzketen adierazle edo irizpideak identifikatzea: izaera kuantitatiboa duten proposamenak izan daitezke, datuak eskatu eta aztertzeko, edo izaera kualitatiboa izan dezakete, pertzepzioak baloratu eta bizi-historien berri emateko.

Gerta daiteke ez edukitzea eskura jakin nahi duzuenari buruzko informaziorik. Bere horretan, lan-ekintza garrantzitsua izan daiteke faltan duzuen informazioaren kontzientzia hartu eta erakunde egokietara jotzea hori eskatzera. Batzuetan, informaziorik ez badugu, erakunde publikoek eskuartean dituzten datuak eta azterketak eman diezazkizuekete, argitaratuta egon ez arren edo herritar guztien eskura egon ez arren.

Komeni da bilkura-kopuru zehatz bat finkatzea egin beharreko proposamena adosteko. Hobe da proposamenak saiatu eta, beharrezkoa bada, berriro bideratzea, eta ez denbora luzeegia ematea eztabaidan, eta proposamena abian jarri aurretik ere aspertzea.







### Social Watch-en indizeak

Social Watch-en urteroko txostena da erakunde horren argitalpenik ezagunena. Nazio-mailako koalizio guztiek gai zehatz baten inguruan egindako ekarpen guztiak biltzen ditu txostenak (sarearen unean-une-ko lehenetsuen ondorioz aukeratzen da gaia). Gobernuek garapenaren eta giza eskubideen alorrean hartutako konpromisoak nola ezartzen diren zaintzeko, antolakundeak egindako lanaren ondorioz ateratako ikuspegi kritikoa izaten da. Social Watch-en Urteko Txostena sarearen kanpaina-tresnarik eraginkorrena da; maila politikoa eta akademikoa ez ezik, gizarte zibileko parekoen artean ere aitortu eta errespetatzen da lan hori.

Txosten horretan, Gizarte Garapenari Buruzko Gailurreko eta Emakumearen Mundu Konferentziako helburuak betetzea galarazten duten gaurkotasuneko gaietan sakontzeko artikulua egiteaz gain, bi indize egiten dira herrialde gehienetan.


**Oinarrizko Gaitasunen Indizea (OGI)**, hiru adierazleren bidez egiten dena: hezkuntzako bosgarren mailara iristen diren neska-mutilen portzentajea; bost urtetik beherako haurren hilkortasun-tasa; eta pertsonal mediko espezializatuek lagunduta egiten diren erditzeen portzentajea. Hiru adierazle horiek hezkuntzaren, haur-osaunaren eta ugalketa-osasunaren egoera adierazten dute, mundu mailan hitzartutako garapen-helburuak kontuan hartuta (adibidez, Milurtekoaren Garapen Helburuak).

**Genero Ekitatearen Indizeak (GEI)** herrialdeetan gertatzen den genero-desberdintasuna neurtu eta alderatzen laguntzen du, hiru alderdi kontuan hartuta: hezkuntza, parte-hartze ekonomikoa eta ahalduz.

[www.socialwatch.org](http://www.socialwatch.org)

[www.2015ymas.org](http://www.2015ymas.org)

[www.facebook.com/SocialWatch](https://www.facebook.com/SocialWatch)



## VIGILA Peru

VIGILA Peru, deszentralizazio-prozesua zaintzeko sistema herritar bat da. Propuesta Ciudadana Taldeak sortu du, Participa Perú proiektuaren esparruan. Proiektu horren barruan daude, gainera, Catholic Relief Services (CRS) eta Research Triangle Institute (RTI). Centro de la Mujer Peruana Flora Tristan (CMP-FT) erakundea ere bertako kidea da.

Gaur egun, hiru osagai dituzte zaintza-ekintzek:

- Eskualdeetako gobernua zaintzea.
- Tokiko gobernua zaintzea.
- Erauzte-industrien errenta zaintzea.

<http://descentralizacion.org.pe/n-vigilaperu.shtml>

## Babesteko Betebeharra: haur soldaduentzako justizia, Kongoko Errepublika Demokratikoan (KED)


Ajedi-Ka PES/ Haur Soldaduei buruzko Proiektua eta WITNESS

Dokumental horrek haur soldaduen historia pertsonalak aurkezten ditu. Bideoa argitaratu ondoren, Nazioarteko Auzitegi

Penalak karguak aurkeztu zituen haur soldaduek erreklutatu zituzten Kongoko militarren aurka.


[www.ajedika.org](http://www.ajedika.org)

[www.informationactivism.org/es](http://www.informationactivism.org/es)



### 3. urratsa

*Abian*





## Helburua

- ✓ Aurkeztu edo aztertu nahi dituzuen gaien inguruko informazioa edo lekukotasunak bilatzea.
- ✓ Informazioa ordenatzea, sailkatzea, eta zuen helburua lortzeko garrantzitsuena zein den zehaztea.

## Aurkezpena

Zer aztertu nahi duzuen aukeratu ondoren, gai horren inguruan ahalik ikuspegi zabal eta argiena izaten lagunduko dizueten datuak, lekukotasunak eta erreferentziak bilatzeko unea etorri da.

Erakunde publikoen bidez lor dezakezuen informazioa baliabide garrantzitsua izan daiteke. Gaur egun geroz eta erakunde publiko gehiagok jakinarazi nahi dute zer jarduera egiten duten, zer inpaktu eta zer kostu duten. Gardentasuna, gobernu irekia eta parte-hartzearekiko ardura geroz eta gehiagotan agertzen dira erakunde askoren agenda politikoan, herritarrekin harreman estuagoa izan nahi dutelako. Halere, 2011. urtean, gure inguruan oraindik ere ez dago informazioa eskuratzeari buruzko legerik. Egiteko bide luzea dugu oraindik. Nolanahi ere, informazio asko eskura dezakezue. Maila publikoan, erakunde askok informazio ugari jartzen dute webguneetan: txostenak, kontseilu-aktak, proiektuen aurkezpenak, etab. Batzuetan ezin dira hain erraz eskuratu eta denbora eman behar da aurkitzeko. Beste batzuetan, eskuragarri ez dagoela ikusi ondoren, herritarrentzako arretarako postakutxetan edo erakundeetan galderak edo eskaerak eginez eskura dezakezue informazio hori.

Gainera, hainbat gairi buruzko informazioak eta datuak biltzen dituzten erakunde espezifikoak ere badaude. Estatu-mailan, Estatistikako Institutu Nazionala ([ine.es](http://ine.es)) duzue, eta erkidegoetan ere horren pareko erakundeak daude, hala nola Eustat ([www.eustat.es](http://www.eustat.es)) EAEn, edo Nafarroako Estatistika Institutua ([www.cfnavarra.es/estadistica](http://www.cfnavarra.es/estadistica)) Foru Erkidegoan.

Informazioa  
eskuratzeari  
buruzko legea  
lortzeko bide  
luzea dugu  
oraindik.



Datu horien atzean errealitate, historia eta bizipen pertsonalak daude.

Gainera, Eusko Jaurialtzako (opendata.euskadi.net) weborrialde bezalako orrialde berriak badira. Horietan, erakundeek pertsona interesatuentzat publikoak diren datuak eskeintzen dituzte.

Aurretik aipatu dugunez, posible da tokiko beste erakunde batzuek gai hori landu izana, edo Unibertsitateek, bestela.

Datu horien atzean errealitate, historia eta bizipen pertsonalak daude, eta horiekin ere lan egin dezakezue, jakiteko kolektiboek zer zailtasun, oztopo eta aukera dituzten gaietako bakoitzean.

Aukerarik onena zera da: aurkezturiko datuen ondorioak erakusteko, zenbaki-datuak eta errealitate edo gai espezifikoak nahastea.

### Baliabideak


Internetek baliabide eta datu eguneratu ugari eskaintzen dizkizue. Nolanahi ere, ez duzue aiantzi behar pertsona zehatzei datu zehatzak eskatzeko aukera duzuela, Interneten bidez edo aurrez aurre. Beti da interesgarria zehatzea zer formatutan jaso nahi dituzuen datuak, eta hobe formatu elektronikoan bada.

Informazio propioa sortzeko beste modu bat zera da: landu nahi duzuen dokumentatzea. Mugikorren, argazki-makinen bidez... erraz eskura ditzakezue argazkiak 📷 edo bideoak 📹, eta aldarazi nahi dituzuen egoerak erakusteko modu egokia izan daitezke. Besteak beste, elkarrizketek, gai zehatzen inguruko eztabaida-taldeek eta abarrek ere lagun diezazuekete ezagutzen zer pertzepzio eta kezka dituzten herritarrek gai zehatz baten inguruan.

Komunitate-diagnostikoak egiteko erabiltzen diren beste dinamika batzuk erabil ditzakezue. Landa-eremuan parte hartzeko diagnostikoak erabili dira eta, irudien bidez, lurralde zehatz baten errealitatea deskribatzeko aukera ematen dute. Mapa hitzunak 🗺 deritze herri bateko eragileek herriari buruz dituzten pertzepzio ugariak ezagutzeko balio duten mapei. Agerian jarri



nahi dituzuen elementuak mapan adierazteko gonbidapena egiten zaie herritarrei; adibidez, eremu zehatzean irisgarritasun eskasa dagoela, baliabide natural edo berdeguneen inguruko kezka, herritarren mugikortasuna... Irudiz egindako mapa izan daiteke, mapa kartografikoa, edota maketak. Baina argi izan behar duzue zenbat denbora eskainiko diozuen jarduerari, eta zer asmorekin egiten duzuen.



Beste dinamika bat da inguru zehatz batean transektu-izeneko bisita edo ibilbidea egitea. Helburua zera da: eremu zehatz batean oinezko ibilbide bat egitea, bidean aukera baitago hirugarren pertsonekin elkarrizketatzeko, etxebizitzaren egoera identifikatzeko, inguruan dauden zerbitzuak antzemateko... Aurretik aipaturiko maparen osagarria izan daiteke teknika hori.

Landa-eremuan lurraren lanketan gertatzen diren aldaketak identifikatzeko erabiltzen diren urtaroen egutegiak ere erabil daitezke, eremu publiko berbera kolektiboaren, generoaren... arabera nola erabiltzen den ikusteko. Denbora-tarte batean joerak eta jardueraren aldaketak



Egin beharreko lehen ekintza eta ekintza bakarra gai zehatzari buruzko datuak eskuratzeari izango da.

adieraziko dituzten diagramak egiteko eskatuko diezue pertsona-multzo desberdinei. Adibidez, lerro edo sareta baten bidez, parametrotzat aukeratu dugun denbora-tartea adieraziko duzue (eguna, astea, hila, etab.). Komunitateko gizonen eta emakumeen eguneroko jarduerak azter daitezke; taldearen jai eta ospakizun garrantzitsuenak; kolektiboen arabera eremu publikoa nola erabiltzen den; osasun-egutegia; diru-sarrerak eta -irteerak...

### Aholkuak

Interesatzen zaizkizuen datuak lortzeko zailtasunik baduzue, eska itzazue eta aldarrikatu zeuen eskubidea. Informazioa eskuratzeari buruzko Legerik dagoen jakin dezakezue, edota Eskuragarritasunaren Aldeko Koalizioaren bidez (Coalición Pro Acceso) egin dezakezue eskaera. Honako orrietan jasoko duzue horri buruzko datu gehiago: [access-info.org](http://access-info.org); [proaccesso.org](http://proaccesso.org); [alboan.org/info-ekintza](http://alboan.org/info-ekintza).

Gai horren inguruko lehen urratsak baino ez dituzue eman eta denbora behar da datuak bildu eta irekitzeko kultura sortzeko. Nolanahi ere, esperientziak erakutsi digu hasieran zaila den arren, gero ohiturak sortzen direla parte hartzen duten eragile guztien artean. Gaitasuna izan behar duzue ekinaren ekinez gure asmoak egoki azaltzeko, pertsona guztientzako onura dakarrelako. Herritarren, gizarte-erakundeen eta erakunde publikoen arteko harreman-eredu berri bat eraikitzea eskatzen du horrek. Harreman-eredu berri hori lortzeko bidean, suszeptibilitateak eta aurreiritziak hautsi behar dituzue eta, horretarako, lankidetzar-estrategia berriak eta, beharrezkoa denean, salaketa-estrategiak ere garatu beharko dituzue.

Buruan izan behar duzue zeuen esku soilik ez dagoen informazioa eskuratzeko denbora behar izango duzuela eta, ondorioz, lan hori burutzeko denbora gorde beharko duzuela.

Azkenik, zer datu lortu ditugun eta zer datu lortu ez ditugun, biak zehaztea komeni da. Horrek guztiak batera emango dizuelako gai zehatzari buruzko informazioa. Kasu batzuetan, egin beharreko lehen ekintza eta ekintza bakarra gai zehatzari buruzko datuak eskuratzeari izango da. Oso garrantzitsua da eta beraz, aurrera!





## Adibide batzuk

### Kazetaritza Herritarra

Periodismo Ciudadano web-orri baten izena da. Kazetaritza herritarraren, irakurleen parte-hartzearen eta sareko ziberekintzailatzaren inguruko behatokitza jotzen du bere burua. Fenomeno hori hedatzen eta ekimen berriak prestatzen eta abian jartzen laguntzea da helburua. Horregatik, Periodismo Ciudadanok parte-hartze aktiboa du ikastaroetan, tailerretan, biltzarretan, etab.

Periodismo Ciudadano eztabaidagune bat da, eta kazetaritza herritarraren, hedabide herritarren eta gai horri buruzko blog-en inguruan dauden informazio eta baliabide guztiak eskaintzen ditu. Proiektu irekia da eta edozeinek har dezake parte, albisteak edo estekak bidaliz, edo kazetaritza egiteko era berri horren gainean eztabaidatuz.

[www.periodismociudadano.com](http://www.periodismociudadano.com)



## Presidentearen hegazkina antzematea

### Tuniziako ekintzaileak

Tuniziako blog-erabiltzaile asko bildu ziren mapak eraikitzeko proiektu batean, eta horren ondorioz jakin zuten presidentearen hegazkina bidaiari pertsonal asko egiteko erabiltzen zutela. Astrubal izeneko blog idazle batek aireko trafikoa arakatzeko Interneteko orri batzuetan presidentearen hegazkinaren irudiak ikusi zituztenean hasi zen kanpaina hori. Datu horiek erabiliz, Astrubalek Google Earthen bidez (Munduko edozein lekutako mapak eta satelite-irudiak ikusteko aukera ematen duen tresna bat) egindako elementu bisual batekin lotu zituen hegazkinaren argazkiak, eta horrela jakin zuten zer aireportutan agertzen zen.

Bideoa YouTuberen bidez hedatu zen eta, horren ondorioz, hedabide konbentzionalak ere aztertu zuten egoera. Gobernuko funtzionarioek ondare publikoak bidegabe erabiltzen zituztelako gaiak arreta handia eragin zuen. Kanpainak beste ondorio bat ere ekarri zuen, ordea: Tuniziako Gobernuak YouTube eta DailyMotion izeneko beste orri bat blokeatu zituen.

Proposamen hori egiteko, Interneten hegazkinak antzemateko dauden orrietan (Airliners.net, esaterako), Google Earth-en, YouTube-n eta Flickr-en oinarritu ziren.

<http://bit.ly/cOUSo>  
[www.informationactivism.org/es](http://www.informationactivism.org/es)



## Legebiltzarraren jarraipena

### Parlio

*Pro Bono Publiko* izeneko elkartearen ekimena da Parlio. Eusko Legebiltzarraren webgunean agertzen diren datuak erabiliz, erakunde horri buruzko gaurkotasuneko informazioa eskaintzen du, modu erakargarri eta eskuragarrian.

Abiapuntu bat dute: legebiltzarreko ordezkariak aukeratu egiten ditugu, bai, baina askotan ez dakigu ordezkatu egiten ote gaituzten. Abiapuntu horretatik abiatuta, beraz, web horrek era eskuragarrian erakutsi nahi du zer eztabaidatzen den, zer proposatzen den eta zer erabakitzen

den Eusko Legebiltzarrean. Eremu horrek legebiltzarreko jarduerari buruzko informazioa eskuratzeko aukera eskaintzen du. Webgune horretan sartuta, hainbat konturi buruzko informazio jaso dezakegu: legebiltzarreko jarduera, gaiaren arabera sailkatutako gaurkotasuneko gaiak, eta legebiltzarrean ekimen gehien aurkeztzen dituzten legebiltzarkideen zerrenda.

Zentzu horretan, ekimenaren sustatzaileek diote leku horretan ez dutela iritzirik ematen, eta datuek berez adierazten dutela adierazi beharrekoa. Horixe da datuen alde ona.

[www.parlio.org](http://www.parlio.org)



## Subsidios al campo

### Fundar, Mexiko

Mexikoko nekazaritza eta abelazkuntzarako diru-laguntzen azken erabilerari buruzko argipenak ematen dituen latinoamerikako lehen webgunea da Subsidios al Campo. Horretarako, tresna erraz bat erabiltzen du, nekazaritzarako diru-laguntzarako programen onuradunen eroldari buruzko datu ofizialak jakiteko.

Fundar erakundeak sustatu du webgune hori. Ibilbidearen hasieran, giza eskubi-deen eremuan hasi zen lanean, aurrekontu publikoak aztertuz, gizarte-gastua zenbatekoa zen ikusirik. Ereku horretan garatutako gaitasun nagusiak eskubide ekonomiko eta sozialei lotutakoak izan ziren, eta indar berezia jarri zuten osasunerako eskubidea

aldarrikatzen. Alabaina, pixkanaka-pixkanaka, jarduera-eremua zabaldu eta eskubide zibil eta politikoei lotutako proiektuetan ere sartu da. Hala, tokiko gobernuen kudeaketari buruzko ikerketak egin ditu, giza eskubideei lotutako erakundeen jarraipena egin du, eta Mexikon Kanadako meatzaritzak izan duen eragina aztertu du.

[www.subsidiosalcampo.org.mx/index.html/](http://www.subsidiosalcampo.org.mx/index.html/)

<http://fundar.org.mx/mexico>

Mexikoko proposamen horren antzerako proposamenak daude Europan ere, Europako Batasuneko Nekazaritza Politika Bateria-aren inguruan.

[www.farmsubsidy.org](http://www.farmsubsidy.org)



## Argazkisalaketa

### Greenpeace

Greenpeacek herritarrek parte-hartzeko modu berri bat garatu du, pentsatzen duela gizarte-presioa dela modu eraginkorrena gure planeta babesteko egin beharreko aldaketak eragiteko.

Herritar guztiak inplikatu nahi dituzte ingurumenaren nariadura geldiarazteko jardurean. Ideia zera da: pertsonak guztiok ikus dezakegu nola erasotzen zaion behin eta berriro ingurumenari gure inguruan.

Argazkisalaketaren bidez, Greenpeacek argazki-lekukotasunak argitaratzeko konpromisoa hartzen du. Horrela, ingurumenaren

aldeko gizarte-presioa areagotzen du, eta gaur egun giza jardura asko zer egoera negargarrian egiten diren jakinarazten du.

Helburua argia da: datu zehatzak eskainiz, herritarrek ingurumenaren errealitatearen inguruan sentsibilizatzea. Bide zehatz eta eraginkorra, gure planetaren defentsan harrizko bat gehiago jartzeko.

Nahi beste argazki bidal daitezke; aski da argazki horietako bakoitzerako informazio osagarria jasoko duen inprimaki bat betetzea.

<http://fotodenuncia.greenpeace.es/>



## Informazio eskuratzeko eskubidea

### Coalición Pro Acceso

Plataforma hori gizarte zibileko erakundeek eta pertsona soilek osatzen dute. 2006ko urrian sortu zen, Espainian Informazioa Eskuratzeari buruzko Legea bultzatzeko sustatzeko asmoz.

Kide sortzaileek zuzendaritza-batzordea osatzen dute. Koalizioan parte hartuz,

beste GKE eta pertsona batzuek ere adieraz lezakete euren adostasuna, edota administrazio publikoaren gardentasunaren aldeko ekintzetan parte har dezakete. Lizenematea posta elektronikoaren bidez egiten da. [coalicion@proacceso.org](mailto:coalicion@proacceso.org)


[www.proacceso.org](http://www.proacceso.org)

[www.alboan.org/info-ekintza](http://www.alboan.org/info-ekintza)



## 4. urratsa

# *Eragiozu buruari*







## Helburua

- ✓ Lortutako datuak aztertzea.
- ✓ Horiei buruz hausnartu eta ondorioak ateratzea.
- ✓ Hobetzeko esparruak identifikatzea.

## Aurkezpena

Zer eremutan jardungo duzuen eta zer adierazle edo alderdi aztertuko dituzuen erabaki ostean, hurrengo unea ere zaila izaten da. Izan ere, urrats honetan informazio guztia aztertu eta ondorioak atera behar dituzue. Horretarako, baina, gogoan izan behar dituzue hasieran finkatu genituen aurreikuspenak eta helburuak.

Azterketarako eta eztabaidarako unea heldu da, baina zifrekin eta datuekin aritzeko garaia ere izan daiteke, formatu eta ikuspegi desberdinen bidez bistaratu eta errealitatearen ikuspegi ahalik eta anitzena izan dezazuen.

Egokia izan daiteke gaiari buruz gehiago jakin dezaketen pertsonekin kontrastatzea zalantzak, sor daitezkeen zalantza edo gaiiei buruz bestelako azalpenak eman diezazkiziekete eta. Geroago aipatuko ditugun kasuetako batzuetan gertatzen den bezala, hirugarren pertsonengana jo dezakezue datu-kopuru handia erabiltzen laguntzeko.

Azterketarako eta eztabaidarako unea heldu da, eta jolas egiteko garaia ere.



Datuak  
bistaratzeak  
esan nahi  
du formatu  
desberdinetan  
marratzu edo  
irudikatu  
beharko  
ditugula.

## Baliabideak

Datuak beste erakunde batzuen bidez bistaratuz gero, bestelako ondorio batzuk, ondorio berriak atera ahalko dituzue. Datuak bistaratzeak esan nahi du formatu desberdinetan marratzu edo irudikatu beharko dituzuela. Gaur egun teknologia berriek asko lagun diezazuekete horretan, baina ohiko formatuak ere erabil ditzakezue (irudiak, figurak, irudikapenak). Teknologia berrien artean, Interneten Motion Chart begiratzea komeni da, zuen datuak ikusgarri egiteko baliabide egokia izan daiteke eta.

Gainera, lehenetsunak finkatzeko teknikak edo dinamikak erabili beharko dituzue. AMIA bezalako taulak edo matrizeak ezagunak dira. AMIAn, koadrante batean, ekintza edo egoera zehatz batek testuinguru zehatz batean dituen ahultasunak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak jasoko dituzue, eta horren arabera hautatu ahalko duzue.

Azken garaian askotan erabiltzen da world kafearen dinamika. Intereseko gaiak identifikatzeko, ekintza-proposamenak zehazteko edo elementuak lehenesteko balio du proposamen horrek. Intereseko gaiei buruz elkarrizketa-sarea sortzeko modu bat da World Kafeko elkarrizketa. Kafe-elkarrizketa prozesu sortzailea da: lankidetzarako elkarrizketa bat sortuz, ezagutza partekatu eta tamaina guztietako taldeetarako ekintza-aukerak sortzen dira. Dinamika horretan, mahaiai eratu eta pertsona batek dinamizatzaile-lana egiten du. Galdera edo gai batetik abiatuta, horren inguruan hitz egitea da kontua. Bertan agertzen diren proposamenak eta hausnarketak mahaiko manteean idazten dira. Elkarrizketak hamar bat minutu iraun dezake eta pertsonak mahai batetik bestera ibiltzen dira. Horrela, aurreko taldeetan hitz egindakoa elkarrizketa berrian txertatzeko aukera daukate.

Matrizea egiteak ekintzen eta egoeren aldeko eta kontrako elementuak, potentzialtasunak eta mugaketak ezagutzen lagun diezazueke. Honako hau da aukera egitean kontuan hartzeko gomendatzen duzuen irizpidea: premiazkoa/larria, egingarria/beharrezkoa... Horri esker, zuen ekintzak ez dira bideratuko beti egingarria eta premiazkoa denerantz eta, aldiz, sakoneko arazoei ekin ahalko diezue.

Ahultasunak	Indarguneak
Mehatxuak	Aukerak



Beste aukera bat taldea bitan banatzea da: talde bat “exajeratua” eta bestea “txikiagotzailea” izango dira. Lehen taldearen helburua da gaia ebazteko ideia positiboak, itzelak, inozoak eta surrealistikak pentsatzea; bigarren taldearen helburua, berriz, ideia ezkorrak sortzea. Bi taldeei eskatuko diezue ideiak txartel batean era bisualean gauzatzeko (zerbait erraza izan daiteke, ez da beharrezkoa marrazten gaitasun handirik izatea), eta horretarako goiburua aukeratzeko. Txartelak horman jarri eta pertsona guztiei eskatuko diezue itzuli bat egin ondoren, irtenbidea bilatzeko prozesuan lantzea merezi duen edozer gauza idazteko. Ohar guztiak taula batean jarriko dituzue, kategoriatan sailkatuta eta hierarkia baten arabera ordenatuta, eta beraiei buruz eztabaidatzeko eskatuko duzue. Eremu edo adierazleak aukeratu aurretik, inguruko jendearekin kontrastea egin dezakezue, nola baloratzen dituzten ikusteko. Horrela, taldeak egindako proposamenak berretsi edo ezetsi egingo dituzue.

### Aholkuak

Behin eta berriro errepikatu arren, are gehiagotan ere azpimarratuko dugu! Ez duzue ahantzi behar beti dagoela inguruan jendea, gai edo metodologia zehatzetan eskarmentua duena, eta beraiengana jo dezakezuela ekintza puntualetan laguntza eskatzeko.

Bigarren urratseko posterretako batean gizatasunaren test-a aipatzen genuen. Hausnarketan eta dinamiketan, komenigarria da kontuan hartzea gizarte-garapenerako proposamen hori zuen inguruko pertsona guztientzat eta munduko leku guztietan egingarria ote den. Era berean, lurrean duzuen presentziarako iraunkorra ote den ere pentsatu behar duzue.

**Hausnarketan eta dinamiketan, komenigarria da kontuan hartzea gizarte-garapenerako proposamen hori zuen inguruko pertsona guztientzat eta munduko leku guztietan egingarria ote den.**





### Joku Zuzena

#### Joku Zuzena aliantza, Eslovakia

Informazio-askapenari buruzko eskaeren bidez, Joku Zuzena Aliantzak fakturak eta bestelako agiriak biltzen ditu, Eslovakiako gobernuak dirua nola gastatzen duen erakusteko. Aldi berean, Aliantzak Interneteko orriko datu-base batean jarri du material hori, eta jendea gonbidatu du informazio hori aldaketa politikoan eragiteko erabil dezan. Joku Zuzeneko Zuzana Winekek azaldu zuenez, "berrikitan, Europar Batasuneko finantzazioari buruz Eslovakian izandako eskandalu handi baten harira ekin genion horri. Hedabideak konturatu ziren Gobernuko aitzindariari hertsiki lotutako enpresei ematen zizkietela kontratuak. Informazio-askatasunari buruzko legeak erabiliz, enpresa eta ministro horien arteko kontratuei buruzko informazioa, fakturak eta bestelako agiriak eskatu genituen. Informazio horretan oinarritutako grafikoak egin eta Interneten argitaratu ge-

nituen. Gainera, eskura genituen faktura guztiak eskaneatu genituen".

Handik gutxira, kazetariak, GKEak, herritarrik eta hezkuntza sektoreko kideak datuak aztertu eta horri buruz idazten hasi ziren. Zuzanaren esanetan, "foro aktibo ugari egon ziren artikulua horien ondorioz. Horrek pentsarazi zigun garrantzitsua zela herritarrik ikerketa horretan sartzea, badagoelako interesa, gaitasuna eta ezagutza espezializatua duen jendea". Informazioa erraz eskuratzeko aukera eskainiz, gastu publikoei buruzko eztabaida piztu zen, eta horrek eragindako presioaren ondorioz, Eslovakiako eraikuntza-ministroak amore eman behar izan zuen.

Datu-base pertsonalizatua abian jartzeko, kode irekiko tresnak erabili zituzten (MySQL, Apache Server eta PHP). Eskaeretatik inportatutako datuak Excel kalkulu-orrietan landu zituzten. Gainera, "web scrapers"



izeneko tresnak ere erabili zituzten, hau da, Interneteko orri bateko datuak ateratzeko aukera ematen duten tresnak.

Ikasle boluntarioek lagundu zuten datu-basea eguneratzen. Programatzaileek Joku Zuzenak proiektua planifikatzeko antolatu zuten "ez-konferentzia" batean hartu zuten parte (ingelesez BarCamp deritzo, hau da, parte-hartzaile guztiek edukia lantzen duten jarduera irekia: ikasteko eta esperientziak

partekatzeko garatzen dituzte jarduerak). Bederatzi hilabete eman zituzten, harik eta 2003an lehen datu-basea abian jarri zuten arte. Datu-basea 3 edo 12 hilabetean behin eguneratzen da, informazio-askatasunari buruzko eskaeretatik datozen datuak erabiliz.

[www.fair-play.sk](http://www.fair-play.sk)

[www.informationactivism.org/es](http://www.informationactivism.org/es)




## Nora doaz nire zergak?

*Pro Bono Publico* elkarteko David Cabok garatutako aplikazioa da. Estatuko Administrazio Zentralaren (Ministerioak, menpeko agenziak eta beste erakunde publiko batzuk, hala nola Kongresua) eta Gizarte Segurantzaren urteko gastuen banaketa erakusten du, argi ikusteko moduan, 2009tik 2011rako Aurrekontu Orokorre-

tan oinarrituta. Bertan ikus daiteke nola aldatzen diren gastuak urtetik urtera, eta zer esparrutara bideratzen diren Estatutaren baliabide gehienak. Kontuan izan behar dugu Autonomia Erkidegoek eskumen garrantzitsuak dituztela, hala nola hezkuntza eta osasuna.

[www.dondevanmisimpuestos.es](http://www.dondevanmisimpuestos.es)



## Herri ohiturei buruzko marrazki bizidunak, emakumeen ikuspegiarekin

### Women and Memory Forum Emakumeen eta Oroitzapenaren Foroa, Kairo, Egipto

Emakumeen ikuspegitik abiatuta, Arabiako kontakizun tradizionalak jasotzen zituen marrazki bizidunen bideo labur bat egin zuten artistek eta ekintzaileek. Animaliak eta objektuak erabiltzen ditu bideoak, genero-desberdintasunak era sortzailean

kontatzeko, baina beti ere ikusleak kontuan hartuta.

Bideoa egiteko Adoberen programak (Photoshop, After Effects eta Premiere) erabili ziren, eskuz egin eta konputagailuan eska-neatutako zirriborroei bizia emateko.

[www.wmf.org.eg](http://www.wmf.org.eg)

[www.informationactivism.org/es](http://www.informationactivism.org/es)

## Gizarte-garapenari buruzko Trivial-a

### Social Watch

Social Watch-en indizeen datuak ezagutzera eman eta horien inguruan lan egiteko asmoz, Trivial birtual bat egin zuten, giza gaitasuneko eta genero-berdintasuneko indizeetan ezarritako adierazleen jarraipenari esker lortutako datuei buruz hausnartzeko eta ondorioak ateratzeko.

Haien jolasarekin aritu zaitezke, edota egokitu egin dezakezu.

[www.socialwatch.org/sites/default/files/statistics04/es/flash\\_espanol/index.html](http://www.socialwatch.org/sites/default/files/statistics04/es/flash_espanol/index.html)








## 5. urratsa

# *Kontatu, hedatu eta proposatu*





## Helburua

- ✓ Zuen azterketa zabaltzea eta zeuen ingurunea sentsibilizatzea.
- ✓ Aztertu duzuen gaiari buruz, herritarren arreta erakartzea.
- ✓ Ekintza-proposamena aurkeztea eta parte hartzeko gonbidapena luzatzea.

## Aurkezpena

Berriro ere une sortzaile batean zaudete, egindako lana beste pertsona batzuekin partekatzeko unean. Partekatze horretan, ez dituzue inolaz ahortzi behar esperientziaren edozein fasetan parte hartu duten pertsonak edo kolektiboak.

Berriro ere ekarri behar duzue gogora garrantzitsua dela jakinmina eta errealitatea aldarazteko premia sorraraztea. Irudiak, sinboloak edo mezuak baliagarriak izan daitezke momentu horretan.

Egindakoaren berri emateko garaia da: gizarte-sareak, Internet, hedabide alternatiboak edo ohiko hedabideak erabil ditzakezue. Alabaina, talde zehatzetara jo eta, gero, jende horrek mezua inguruko jendeari zabaltzea da estrategiarik interesgarriena, hobekien funtzionatzen duenetako bat.

Proposamenaren berri eman aurretik, ondo aztertu behar dituzue elementu guztiak: zer mezu transmitituko duzuen; zer entzuleriari zuzentzen zaion; zer ekintza-proposamen aurkezten duzuen; bestelako elementu batzuk (goiburua, kontsignak...).

- ✓ **Taktika:** entzuleria espezifiko bati zuzentzeko erabiliko den ikuspegia. Taktikak erakargarria izan behar du, talde horretako gustu, ohitura, interes eta balio-sistemara egokituta. Taktiken artean kontuan hartzekoak, gazteak erakartzeko umorea erabiltzea, ekintza kolektiboa sortzeko taldea mobilizatzea, mezu argia transmititzeko informazio konplexuaren

Talde zehatzetara jo eta, gero, jende horrek mezua inguruko jendeari zabaltzea da estrategiarik interesgarriena.



Taktika



Formatua



Publikoa

ikusizko adierazpena aurkeztea, edota historia pertsonaletan oinarritzea, arazo baten ondorioa agerian uzteko.

- ✓ **Formatua:** kanpaina edo ekintzaren bidea edo ingurunea. Adibidez, kalean antzerkia egitea, komiki-bandak, bideo-dokumentala, irrati saioa, blog-a, talde edo orria gizarte-sareetan.
- ✓ **Publikoa:** nori helarazi nahi zatzaizkion. Multzo horretan egongo dira publiko-xedea (lortu nahi duzuen aldaketa eragiteko ahalmena duten pertsonak) eta publiko parte-hartzailea (publiko-xedearengan eragiten lagun dezaketen pertsonak).

Zuen ekintza zuzentzen diozuen publikoaren harira, argi izan behar duzue zein diren talde horiek, eta ekintza guztiak talde guztientzako berdinak izan behar ote diren.

Zentzu horretan, interesa duten publikoen zerrenda izatea lagungarria izan daiteke. Publiko horiek kontuan hartuta, paperezko orri batean ardatz horizontal bat eta ardatz bertikal bat marraztea gomendatzen dugu. Ardatz bertikalean jarriko duzue helburuak gauzatzeko zer eragin-maila duten, eragin handiena dutenengandik hasi (goiko aldean) eta eragin gutxiena dutenenganaino (beheko aldean). Ardatz horizontalean jarriko duzue kanpainaren kontra jartzeko arriskurik dagoen (ezkerrean) edo alde egongo diren (eskuinean). Publiko guztiak paperean marraztu ondoren, eragiteko gaitasun handiena duten erakundeak edo pertsonak identifikatu behar dituzue: bilatzen duzuen aldaketa eragin dezaketen pertsona edo erakundeak. Orduan, erakunde horien eta beste publiko batzuen arteko harremana baloratu beharko duzue. Gero, kanpainaren alde ager litezkeen eta publiko-xedean eragin lezaketen edo harekin harremana duten publikoak identifikatuko dituzue. Bigarren mailako talde-xedek -edo talde parte-hartzaileak- izango dira. Kanpainan parte-hartze aktiboa izan lezakete, helburuak lortzen laguntzeko.

Nolanahi ere, ekintza-estrategian ez duzue begibistatik galdu behar zer kolektibori edota erakunderi zuzentzen diozuen aldarrikapena: garrantzitsua da zuen mezua eta aldarrikapena berarengana “iristea”, haren esku baitago aldaketaren zati bat.

## Baliabideak

Teknologia berriei esker, diru-gastu handirik egin gabe pertsona-kolektibo zabal batera iristeko aukera duzue. Gainera, teknologia horiek erabiliz, zeuen ekintzen eraginari buruzko informazioa jaso dezakegu.

Posta elektronikoa👉, gizarte-sareak👉, blog-ak👉... tresna egokiak izan daitezke pertsonak zenbatu eta parte-hartzera bultzatzeko. Zentzu horretan, Facebook-en nahiz beste gizarte-sareetan aukera dago sarreretakoa batean ohar bat idazten duten bakoitzean posta elektronikoa bidez mezua bat jasotzeko. Horri esker, zuen proposamenerik izan duten onarpena edo interesa neurtu ahalko duzue.

Ondoren aipatuko dituzuen tresnak lagungarriak izan daitezke jakiteko zenbat pertsonek deskargatzen duten kanpainaren logotipoa, zenbat pertsonek jartzen dituzten argazkiak kanpainan antolatutako ekintzaren bat dokumentatzeko, zenbat pertsonek partekatzen duten promozio bideoa euren blog-etan, edo zenbat pertsonek bidaltzen duten kanpainari buruzko posta elektronikoren bat.

Ondoren, honako hauek egiteko eskura dauden tresna batzuk aurkeztuko dizkizuegu:

- **Zuen proposamena era ikusgarrian aurkezteko**
  - ✓ **Blip.tv** (<http://blip.tv/about/newdashboard>) **bideo-taula**. Automatikoki, bideoa hainbat lekutan argitaratzeko aukera ematen du eta gero, gainera, beste bideo-zerbitzu batzuetan (adibidez YouTube, DailyMotion eta Vimeo) azken hori mikro-blogging orri bat da) haren jardura jarrai daiteke. Kanpainako bideoarentzako erantzunak eskatu eta eransteko erabil daiteke taula hori.
- **Bisitei eta abarrei buruzko datuak izateko**
  - ✓ **Google Analytics** ([www.google.com/analytics](http://www.google.com/analytics)). Internet-orri bat zenbat pertsonak bisitatzen duten, zer orritatik iritsi diren, bisitak zenbat denbora iraun duen, zer orri bisitatu dituzten... zenbatu eta ikusteko aukera eskaintzen du.

Garrantzitsua da zuen mezua eta aldarrikapena berarengana "iristea".



- ✓ **AWStats/JAWStats** (<http://awstats.sourceforge.net> • [www.jawstats.com](http://www.jawstats.com)). AWStats kode irekiko doako tresna bat da, Interneteko trafikoa aztertzeko. Orri bat zenbat pertsonak bisitatzen duten miatzeko aukera ematen du. Nabigatzailearen utilitatea zabaltzeko aplikazio (plug-in) bat da JAWStats, eta AWStats-ekin batera lan egiten du, irakurterazagoak izango diren txostenak sortzeko. Zenbaketa-programa hori Interneteko zerbitzarian bertan instalatu behar da.
  - ✓ **FeedBurner** (<http://feedburner.google.com>). Interneten oinarritutako aplikazioa da. Blog batean argitaratutako informazioa jasotzeko harpidetza egiten duten pertsonak zenbatzeko erabil daiteke. FeedBurnerrekin txostenak ere egiten ditu, eta horien bidez, orri horrek Interneten denboran zehar duen arrakasta-maila ikus daiteke.
  - ✓ **ClickHeat** ([www.labsmedia.com/clickheat/index.html](http://www.labsmedia.com/clickheat/index.html)). Interneteko kode irekiko eta doako aplikazioa da, eta pertsona batek web-orria bisitatzen duenean, zer leku klikatzen duen jakiteko ikusizko irudikapenak egiten ditu. Horri esker, web-orriko leku interesgarrienak, irakurterazagoak edo ekintzetara bultzatzeko eraginkorrenak zein diren ikusteko aukera dago.
  - ✓ **HootSuite** (<http://hootsuite.com>). Twitterren bidalitako mezuak irakurri edo erantzuten dieten pertsonak zenbat diren jakiteko azterketa-tresnak ditu HootSuitek.
- **Zuen ekintzari buruzko informazioa bilatzeko**
    - ✓ **Google-n alertak** ([www.google.com/alerts](http://www.google.com/alerts)). Edozein gai hedabideetan izan duen hedadura bilatzeko aukera ematen du tresna horrek. Hedabide inprimatu digitalizatuetan nahiz linean edo blog-etan soilik daudenak aztertzeko. Posta elektronikoko bidezko alertak edo RSS formatuko albisteak eta edukiak (oso banatze-sistema erraza -RSS ingelesez-) jasotzeko harpidetzen zarenean, gaiak argitaratu ahala, eguneratzeak jasoko dituzu.
    - ✓ **RSS formatuko irakurleak** (esaterako, **Google Reader**: [www.google.com/reader](http://www.google.com/reader), **Bloglines**: [www.bloglines.com](http://www.bloglines.com), **RSSOwl**: [www.rssowl.org](http://www.rssowl.org)). Internet orrietan argitaratutako RSS

formatuko edozein edukitan (adibidez, blog-ak, podcast-ak edo bideoak) harpidetzeko aukera eskaintzen dute tresna horiek. Horrela, orri horietan zerbait argitaratzen duten bakoitzean, horren berri jaso eta eskuratu ahal izango dugu.

- ✓ **Twitter ([www.twitter.com](http://www.twitter.com)).** Gai zehatz bati buruz jendeak Twitter-en esaten duena monitorizatzeko aukera eskaintzen du. Hitz-gakoen bidezko bilaketak egin ditzakegu, edo Twitterreko kanpainako erabiltzailearen izena zehatz dezakegu. Mezuei emandako erantzun-aztarnak egin daitezke, edo aurretik # duten hitz-gakoak (hashtag-ak) erabil ditzakegu bilaketak egiteko eta mezu garrantzitsuenak errazago bilatzeko.

Alabaina, ezin duzue ahanzi badaudela Internetik ez duten kolektiboak. Horiei informazioa helarazi nahi badiezue, bestelako ekintzak egin beharko dituzue. Informazioa eta ekintza-proposamenak jakinarazteko hainbat bide dituzue: kalean txartelak👉, pankartak👉 edo paperezko figurak👉 jartzea, adibidez, lehen urratsean aipatu duzuen moduan. Kasu honetan, zuen ingurunearen gizarte-garapena bistaratzea da helburua, eta horretarako animalia batzuen irudiak erabiliko dituzue sinbolo gisa. Jirafa batek zera adieraziko du egoerari erantzuteko maila altua ematen dugula sinbolizatzeko; egoera aldatze-bidean dagoela adierazteko zizarea edo tximeleta bat erabiliko duzue; eta egoera txarra bada ostruka bat erabiltzea proposatzen dizuegu gai horretan burua ezkutatu eta arazoari ekiteko gogo gutxi dagoela adierazteko. Aurretik aipaturiko pankarta eta txarteletan irudika dezakezue hori, edota zuen inguruko leku esanguratsuetan banatutako paperezko figuretan idatzitako mezuen bidez heda dezakezue.

Kalean antzezlan👉 bat egitea ere baduzue, herriko antzerki- edo dantza-talde baten laguntzarekin.

Nolanahi ere, argi izan behar duzue zein den helburua: egoera zehatz batekiko arduraren transmitzea, eta errealitate hori aldarazteko jendeari parte-hartzeko gonbidapena luzatzea. Agerikoa denez, aurretik aipaturiko ekintzak konbinatzeko aukera ere baduzue.



Egoerari  
erantzuteko  
maila altua



Egoera  
aldatze-  
bidean.



Burua  
ezkutatu  
eta arazoari  
ekiteko  
gogo gutxi  
dagoela.



## Ekintza zehatz baterako edo batzuetarako proposamena aurkeztu.

### Aholkuak

Egoera zein den argi laburtu behar da (erraz transmititzeko moduko datuak, edo lekukotasun zehatzak) eta, horrekin batera, ekintza zehatz baterako edo batzuetarako proposamena aurkeztu behar duzue.

Kontuz ibili informazio gehiegi erabiltzearekin. Mezu argi eta errazak errazago iristen dira jendearengana, eta errazago gogoratzen dira.

Jendea zuen ekintzara lotzeko bultzatuko duten hainbat elementu dituzue: historia pertsonalak, umorea, harreman pertsonalak eta kolektiboak, pertsona adierazgarrien parte-hartzea, eta jendeari parte-hartzeko aukera irekita uztea, ekintza horretan euren burua islatuta ikusteko moduan.

Komunikazio-tresna egokiak prestatu behar dituzue, ekintzan parte hartzen duten pertsonak eurak, aldi berean, zuen proposamenaren zabalzaileak izan daitezen.

Funtsezkoa da kontuan izatea nori zuzentzen zatzaizkion, eta hizkera eta informazio-bideak publiko horri egokitzea.







## Adibide batzuk

### Banner-ak

Edozein webgune edo blog-etan txerta daitezkeen online iragarkiak dira. Eskuarki orrialdearen goiko aldean jartzen dira, eta bertan klikatzen denean, beste webgune batera bideratzen dute.

Bestela, mezua prestatu eta norberaren posta elektronikoan, facebook-eko profilean,

skype-n... txerta daiteke. Horrela, ekintza-  
ren inguruko informazioa eman edo gai ze-  
hatz baten inguruko kezka hedatu dezakezu.

[www.cme-espana.org/materiales/difusion](http://www.cme-espana.org/materiales/difusion)

### Neskateka

Laudioko Udalak sustatu du webgune hori, generoaren eta irisgarritasunaren ikuspegitik hobetzeko herriko hirigintza.

Zentzu horretan, emakumeen ikuspegia txertatzen du hirigintzan, eta herritarren parte hartzea gauzatzen du egunerokotasunean garrantzi handikoa den gai batean: eremu publikoetara seguru eta erraz iritsi ahal izatea. Bi puntuak bilduta, gauzatu egiten du emakumeak eta herritarrak gizarte-

bizitzan baldintza berdinekin txertatzeko asmoa.

Illo beretik, herrian eta bertako eremu eta eraikuntza publikoetan ibiltzeko oztopo diren hirigintza- eta arkitektura-elementuak seinaleztatzeko aukera ematen du webguneak. Horrela, elementu horiek konpondu eta mantentzea errazten du. Honako hauek bermatzea da webgunearen helburua: eremu publikoetara baldintza berdinekin



iritsi ahal izatea; pertsonak babestea eta integratzea; eta herritarren askatasuna eta segurtasuna. Bestalde, herritarrei administrazioaren jardueraren berri ematen diote; administrazio-gardentasuna sortzen da,

eta herritarrek administrazioaren kontrola izatea errazten du.

<http://neskateka.net>

## Tigrearen eta krokodiloaren artean harrapatuta

### Asiako eta Pazifikoko sexu-langileen Sarea (APNSW) eta Batasunaren aldeko Emakumeak (WNU)

Asiako eta Pazifikoko Sexu Langileen Sareko kideek (APNSW, ingelesez) bideo digital bat erabili zuten, Kanbodiako "birgizarteratzeko" zentroetan atxilotutako sexu-langileek jasaten dituzten giza eskubideen urraketak eta gehiegikeriak dokumentatzeko. Hedabideen eta bertako ordezkari politikoen esanetan, zentro horien helburua gaitasun bokazionalak irakastea bazen ere, askatu ondoren elka-

rrizketatutako sexu-langileen esan zutenek, indarkeria, bortxaketak, eta ur edangarria, janariak eta medizina ukatzea jasan behar izan zituzten. Dale Kongmontek, APNSW kide eta bideo-ekoizleak, azaldu zuen APNSWko kideen tokiko talde batekin lan egiten zutela: Batasunaren aldeko Emakumeak (WNU, ingelesez). Elkarrizketatu zituzten pertsonak WNUko kideak dira. Bideoa zer zen azaldu eta pertsona batzuek kameraren aurrean elkarrizketa egitea onartu zuten. APNSWk YouTube-n eta Blip.tv-n jarri zuten bideoa, eta Phnom Penh-en 500 sexu-langilerekin

egindako ekintza-jardunaldi batzuetan aurkeztu zuten.

Bideoa 2008an argitaratu zen, HIESari buruzko Nazioarteko Konferentzian. Konferentziaren publiko-xedea Nazio Batuak ziren arren, bideoa milaka lagunengatik aurrean

aurkeztu zuten jarduera horretan. Urtebete baino gutxiago eman zuten irudiak bildu eta editatzen, eta bi aste WITNESS erakundearen emandako ahalduz.

<http://apnsw.org>

<http://bit.ly/1TdeOf> (blip.tv)

### 350: Klimaren aldeko nazioarteko eguna

Mundu osoan jendea klima-aldaketaren inguruko ekintzak egitera bultzatzeko asmoz, 350.org-ek bideo bat egin zuen gai horri buruzko irudi bizidunekin. Irudi bizidunek ikusizko elementu gogorak erabiltzen dituzte, hitzik gabe; beraz, ez da inolako hizkuntzarik jakin behar bideoa ulertzeko. Kontzeptu nagusia 350 zenbakia da, alegia, "zientzialarien esanetan, atmosferan gehienegon daitekeen karbono-dioxido kantitatea, egoera zurrutzateko". "Bagenekien kanpaina hori mun-

du mailan egitekotan, zenbaki hori erabil genezakeela jende guztiak horretaz hitz egiteko". Lehenengo, 350.org-ek bideo-modelo bat egin zuen Microsoft Paint erabiliz eta, ondoren, Free Range Estudioek bertsio bizidun osoa ekoiztu zuten, Flash programaren bidez. Bideo biziduna 350.org-en, YouTube-en eta Facebook-en argitaratu zen. Era berean, grabazioaren DV-Dak igorri zizkieten hainbat telebista-estazio eta talderi, fitxategia Internet bidez jaistea zaila zen lekuetan. Irudi bizidunen



arrakasta zela-eta, Philek adierazi beza-la, "zaila da 'antolatzeko tresna' izena ematea, baina pertsonen interesa piztu eta Internet-orrira bideratzeko modu bat da, horrela zer egin behar duten pentsa dezaten. Jendeak parte hartzen duela sentitzeak berak ere eragin nabarmena dauka. Halere, badauka ahulgune bat: bideoa oso bizkorra da eta, beraz, ez dio jendeari laguntzen 350 zer den ulertzen; ez nik nahi nukeena beste, behintzat". 350.org-entzat bideoa ekoiztearen prezioa handia izan bazen ere, nortasun grafiko handia eman zion eta erakundeak etengabe erabil ditzake irudi horiek bere material guztietan.

Zabalkunde-kanpaina unibertsitateko ekin-tzaile-sareen bidez abiatu zen eta gero nazioartera zabaldu zen, klima-aldaketari buruzko gailur eta konferentzietan. "Aurrekonturik ez dugunean, kolaborazioari esker soilik funtziona dezakegu", azaldu zuen Philek. "Ez gara sarea erabiltzera mugatzen; sarea sortzen ari gara".

Urtebetean, 100.000 bider inguru ikusi da bideoa YouTube-n. Kanpaina mundu-mailan garatzen da: ia 30 langile ditu eta 100 ekintza inguru daude planifikatuta munduan zehar.

[www.350.org](http://www.350.org)

[www.informationactivism.org/es](http://www.informationactivism.org/es)



## “Chaddi” Arrosaren kanpaina

### Indiako emakumeen defendatzaileak

Facebook-en eta blog-en bidez antolatu zirenean, Indiako emakumeen defendatzaileek laguntzaileei eskatu zieten “chaddi” (kulero) arrosak bidal diezazkietela tabernetan edaten zuten emakumeen aurkako erasoak bultzatu zituzten eskumako talde bateko kideei.

Erabili zituzten tresnak: Facebook, Blogspot, Flickr, txartelak eta argazki-makina digitalak.

<http://thepinkchaddicampaign.blogspot>


[www.informationactivism.org/es](http://www.informationactivism.org/es)





## 6. urratsa

*Zer lortu dugu?*







## Helburua

- ✓ Proposatutako kanpaina edo ekintza aztertu eta ebaluatzea.
- ✓ Parte hartu duten pertsonen euren parte-hartzearen edo laguntzaren emaitza itzultzea.
- ✓ Proposamenaren eta emaitzen berri ematea.
- ✓ Iritzi publikoa parte-hartzearen eta zehazki landu denaren inguruan sentsibilizatzen laguntzea.

## Aurkezpena

Geroz eta gehiagotan jakinarazi edo aurkezten dira pertsonen kanpaina izan duten parte-hartzearen edo laguntzaren emaitzak. Deialdia egin duen erakundearen ardura gauzatu da horrela eta, bidezkoa da jendearen parte-hartzea eskatu baduzue, horrek zer emaitza izan duen jakinaraztea.

Atal honetan, proposamena osotasunean aztertzea komeni da. Azaldu egin behar duzue lortu nahi zirenak edo emaitzak lortu diren ala ez, jakina, baina horrekin batera, egindako jarduerak eta beraietan parte hartu duten pertsonak eta kolektiboak ere zerrendatu behar dituzue. Zentzu horretan, garrantzitsua da pertsonen parte-hartzea aitortu eta eskertzea, nahi zenituzten emaitzak lortu ala ez.

Ez duzue aiantzi behar hasiera batean aurreikusitako ez arren, proposamenaren, ikerketaren edo ekintzaren ondorioz sortu diren emaitzen berri ere ematea.

Sentsibilizatu, prestatu, mobilizatu edo inplikatu dituzuen pertsonen edo kolektiboen inguruko alderdi kuantitatiboak nahiz kualitatiboak aztertu behar dituzue. Alderdi kualitatiboen artean

Lortu nahi zirenak edo emaitzak lortu diren ala ez, egindako jarduerak eta beraietan parte hartu duten pertsonak eta kolektiboak ere zerrendatu behar dituzue.



**Esker ona adierazteko, lortutakoa ospatzeko, animatzeko garaia da.**

daude, adibidez, harremanen kalitatea, pertzepzio-aldaketak, errealitatearen edo gai zehatz baten ezagutzaren kalitatea, etab.

Zuen ekintzen emaitzak baloratzean, honako galdera hauek izan behar dituzue gogoan: zuen ingurunearen gizarte-garapena hobetzen lagundu duzue? Zein alderditan? Zer gertatu da kolektibo ahulenekin? Eta genero-berdintasunarekin? Nola eragin du ekintza horrek gainerako munduko pertsonen bizitzan?

Esker ona adierazteko, lortutakoa ospatzeko, falta denaren berri emateko eta jendea beste ekintza batzuetarako animatzeko garaia da.

Ez ahantzi ekintza horren ondorioak beste jarduera batzuk bideratzeko balio dezaketela, edo beste kolektibo batzuek zuen proposamena har dezaketela, jarraipena emateko. Emaitzak jakinarazteak badauka beste eginkizun bat: sentzibilizatzen jarraitzea eta jende gehiagori ematea gaiaren edo goeraren berri.

### **Baliabideak**

Bosgarren urratsean erabili dituzun bideak erabil ditzakezu berriro, parte hartu duten pertsonei emaitzen berri emateko.

### **Aholkuak**

Komenigarria da esperientziaren hasieran bi adierazle-mota hartzea kontuan: batetik, prozesuari berari lotutakoak eta, bestetik, azken emaitzei lotutakoak. Ildo beretik, elementu kualitatiboak nahiz kuantitatiboak baloratzea komeni da. Ekintzaren arabera, alderdi batzuek edo besteek izango dute garrantzi handiagoa, ekintza oso esanguratsuak buru ditzakezuelako, bertan pertsona gutxi bildu arren. Edonola ere, bi adierazle-mota horiek kontuan izatea komeni da.



Lehen esan dugunez, informazioa ezin eskuratzea informazioa da bere horretan. Egoera zehatz bati buruz daturik izatea edo ez izatea informazioa da bere horretan, eta interesgarria izan daiteke hirugarren pertsoneri horren berri ematea.

Ez ahantzi ekintza zuzenduta egon den erakundeari edo kolektiboari emaitza horien berri ematea.

Elementu  
kualitatiboak  
nahiz  
kuantitatiboak  
baloratzea  
komeni da.



### Adibide batzuk

#### Actuable

Herritarren salaketak bildu eta herritarren laguntza jasotzeko webgunea da Actuable. Urtebete eskasean, 700.000 lagunek jo dute Actuable-ra, aldaketak egiteko leku aproposa delakoan. Kopuru horrek hazkunde itzela erakusten du, baina sustatzaileen ustez, zifra bat baino zerbait gehiago adierazten du: milaka herritarrek ez dutela geldi egoteko asmorik. Pertsona

bakoitzaren atzean, gauzak aldarazteko motibazioa dago.

Bertako informazio-blogean agertzen diren hiru historia aurkeztuko ditugu, lehen urteko lanaren balorazio gisa:

Aliciak eskaera bat sustatu zuen, Madrilgo Udalari eskatzeko Madrilgo auzo marjinalak bat, Gallinero, garbi zezala. Hain



zegoen zikinkeria handia, arratoiek katuak ziruditen eta adingabeei eta haur txikiei ha-ginka egiten zieten. Presioari esker, Udalak ingurunea garbitzea onartu zuen. Oraindik asko dago egiteko, baina ekintza horrek fruituak eman ditu.


Umerik eduki ezin zuten beste bikote askok bezala, Antoniok subrogatutako haurdunaldia erabili zuen Estatu Batuetan. Baina alaba horrek ez zuen jaso bikote askoren trataera berdina. Zergatik? Antonio gizon batekin ezkontuta dago. Bikote heterosexualen seme-alabak erregistroan inskribatu zituzten, baina Antonioren ez. Alabarekin Madrilerara itzuli zirenean, egoera zaila zen: alabak ez zuen eskubiderik bere herrialdean bertan. Injustizia horren aurrean, Antonio mugitzen hasi zen. Actuablen eskaera bat sortu zuen eta egun batzuk geroago, Justizia Ministroak desber-

dintasun horri amaiera emateko agindua eman zuen. Actuable-ri laguntzen dioten pertsonen presioa funtsezkoa izan zen. Gestioetan hainbeste hilabete eman ondoren, Antonioren alabak eskubide guztiak bereganatu ditu.

Pertsona guztiok dugu boto sekretu eta autonomia izateko eskubidea. Pertsona guztiok? Ez. Juanjok ezin izan zuen erabili udal eta autonomia-hauteskundeetan. Juanjo itsua da eta hauteskunde horietan ez zuen izan eskubide berdinek. Actuablen eskaera bat jarri zuen, Barne Ministroak bere kasua eta herrialdeko beste hainbate-na konpon zezan. Hasiera batean ez zen lotu, baina sinadura askoren laguntzaz, azkenean posible izan da.

<http://actuable.es>

<http://info.actuable.es>



## 7. urratsa

Kontatu zeure esperientzia eta jarraitu jendea zeureganatzen eta motibatzen





## Helburuak

- ✓ Abian jarritako esperientzia transmititzea.
- ✓ Beste esparru eta errealtate batzuetan esperientzia hori errepiklatzera animatzea.
- ✓ Beste talde batzuk parte-hartzeko eta intzidentziarako ekintzetan sartzeko pistak eta baliabideak sortzea.

## Aurkezpena

Oso garrantzitsua da zeuen esperientziak beste kolektibo batzuei jakinaraztea. Sarritan gertatzen da nekatuta amaitzen dugula jarduera, eta beste batzuetan, aldiz, ekintza batek hurrengora eramaten gaitu. Halere, oso gutxitan hartzen da denbora eta energia esperientzia hori jakinarazteko.

Horretarako, lagungarria izan daiteke esperientzia egiten duzuen aldi berean haren kontakizuna idazten joatea.

Orain egiten ari zareten esperientzia bateratu eta komunikatzeko web-orri bat eskaintzen dizue **ALBOANek** ([www.alboan.org/tomalosdatos](http://www.alboan.org/tomalosdatos)). Mapa batean aurkeztuko ditugu, zuen inguruan edo zuen herriaren antzekoetan mugitzen den jendea lokalizatu ahal izan dezazuen. Interneten kostu larregirik ez dakarten tresnak aurki ditzakezue esperientziaren berri emateko, baina tokiko hedabideak ere badaude, inguruko beste erakunde batzuk... Ildo beretik, ikastaroetan👉, tailerretan👉 eta jardunaldietan👉 ere aurkez dezakezue zeuen proposamena, beste kolektibo batzuk horri erantsi edo euren proposamenak abian jartzera animatzeko.

Funtsezkoena esperientzia transmititzea da: nola sortu den, zer urrats egin diren, zer proposamen jarri diren abian, zer emaitza izan duten... Baina, aldi berean, honako hauek ere komunikatu

Esperientzia  
bateratu eta  
komunikatzeko  
web-orri  
bat ([www.alboan.org/  
tomalosdatos](http://www.alboan.org/tomalosdatos))  
eskaintzen  
dizue  
**ALBOANek.**



Funtsezkoena  
esperientzia  
transmititza  
da: nola sortu  
den, zer urrats  
egin diren, zer  
proposamen  
jarri diren  
abian, zer  
emaitza izan  
duten.

behar dira: zer bultzatu zaituzten konprometitzera; nola aberastu den harremana beste erakunde batzuekin, erakunde publikoekin; zer aldaketa izan diren taldean eta ingurunean.

### Baliabideak

Komunikazio hori idatzizko edo ikusizko agirien bidez egin daiteke. Idatzizko agiriei dagokienez, egin dituzuen blog-ak eta orriak erreferentzia garrantzitsua izan daitezke. Dena dela, aurreko urratsetan behin eta berriro aipatu dugun bezala, gaur egun ikusizko alderdiak duen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Esperientzia era laburrean eta ikusizko euskarri batean transmititzen baduzue, lagungarria izan daiteke: power point aurkezpen bat, bideo irudi bizidunak, pertsona parte-hartzaileen lekukotasuna grabatzea... euskarri horiek guztiek ere balio dezakete.

Baliabidea finkatu ondoren, proposamena nori eta non zabaldu nahi duzuen pentsatu behar duzue. Hainbat kolektibo izan daitezke abian jarritako esperientziaren hartzaileak: inguruko kolektiboak, sektoreko pertsonak, ikastetxeak, hedabideak...

### Aholkuak

Errealitate, talde eta herritar guztiak dira desberdinak. Esparrua al bait hobekien deskribatzea komeni da. Ildo beretik, zuen ustez beste talde batzuentzat interesgarriak izan daitezkeen gaien eta alderdien inguruko ikasketak eta gomendioak sar ditzakezue.

Ez ahanzi irudiak (argazkiak, bideoak...) laguntza handia direla transmititzeko eta arreta erakartzeko unean.

Batzuetan, aldaketek denbora behar dute burutzeko; gerta daiteke, beraz, beste erakunde batzuk gehitzea kanpainari, fruituak ikusi aurretik ere.







### Facebook-eko hartza

#### Greenpeace

Kanpainak bistaratu eta Greenpeacek laguntza jasotzeko asmoz, erabiltzaile bat sortu zen facebook-en, eta 7.000 jarraitzaile eta 10 kausa ditu gaur egun.

Kopenhageko Klimari buruzko Gailurraren harira, pertsonaia bat sortu zuten: urtzearen ondorioz etxea galdu ondoren, bere ingurua eta beretarrak salbatzeko asmoz, aitzindari politikoengana neurri egokiak aldarrikatuz doan hartz zuria. Hartzaren erabiltzailea sortu zen Facebook-en, eta berari buruzko bideo batzuk (mozorro bat) grabatu ziren Madrilan, Zapaterorekin biltzeko ahaleginetan zebilela.

Facebook-eko profilean lagunak eransten hasi ziren eta ia-ia Greenpeacek beste lagun bildu ditu. Halatan, hartzaren istorioak jarraitu egiten du: Greenpeacek klima-aldaketaren inguruan egiten dituen jardueren berri eman eta horietako askotara bertaratu egingo dela iragartzen du.

Beharbada, pertsona askok ez zuketean joko Greenpeace-ren web-orrira gaiari buruzko txosten edo albisteen bila. Aldiz, Hartzaren jardunari buruzko albistek bilatzen dituzte eta, horrela, bestelako publiko batengana iristea lortu dute: halabeharrez gaztea izan gabe ere, gizarte-sarean informazio transmititzeko moduekiko jakinmina duten pertsonak, horien artean indibidualtasuna balio bat dela jakinik.

Batzuetan online eta offline esparruak nahastu dira, pertsona batzuek Facebook-en jarduera baten iragarpena irakurri ondoren, bertaratu, hartzarekin argazkiak atera, eta argazki horiek Facebook-en jarri baitituzte.

[www.facebook.com/greenpeace.oso.polar](http://www.facebook.com/greenpeace.oso.polar)

[www.facebook.com/greenpeace.spain](http://www.facebook.com/greenpeace.spain)



## Emakumeak sortze-lanean



Mujeres Creando Boliviako emakume batzuen kezka onduz sortu zen, eremu propioa nahi baitzuten Boliviako emakumeak bistratzearen alde aritzeko. Lehenengo komunitatea sortu zuten, gero "Café Carcajada" (Barre-algararen kafea), Kultura Zentro Feminista ireki zuten, eta komunikatzeko tresna bereziak eraiki zituzten. Bizitza edertzea zen baliabide berri horien asmoa; modua zen edukia; elkartasuna adierazi eta animoak emateko, protestatzeko eta salatze modua zen. Eta kalean egindako grafitien bidez egin zuten.

"Grafitteadak" (grafittialdiak) izena eman zieten (grafiti eta pintada hitzak lotuta) eta

1993an hasi ziren, Bolivia lehendakaritza-hauteskundeetan murgilduta zegoenean. Urte horretan, pintadek abstentzioaren aldeko kanpaina egin zuten, gezur demokratikoa, botoak salerosteko prozesua baino ez zelako ustean. Gero, eta orain arte horrela jarraitzen du, grafitiek arrazakeria eta estatuaren, familiaren, erakundeen indarkeria eta sexu-indarkeria salatu zituzten. Eta jokabideak aldatzeko gonbidapena ere egiten dute.

[www.mujerescreando.org](http://www.mujerescreando.org)

<http://mujerescreandocomunidad.blogspot.com>



## “Agur armei” kanpaina

Viçenc Fisas Kataluniako UNESCO Zentroko kideak sustatuta, 1994an Logroñon aurkeztu zen “Sekretu hilgarriak daude” kanpaina. Hiru GKE handi erantsi zitzaizkion kanpainari: Amnistia Internazionala, Intermon Oxfan, Greenpeace eta Mugarik Gabeko Medikuak. Helburua, Espainiako Estatuak garatzen zuen arma-merkataritzan gardentasuna lortzea, eta horren inguruko Jokabide Kode bat onartzea. Geroago beste 13 GKE erantsi zitzaizkion aliantzari, eta Unibertsitate Autonomoko Bake eta Giza Eskubideei buruzko UNESCO Katedraren laguntza teknikoa jaso zuen. 1999tik aurrera, bigarren kanpaina aurkeztu zuen (“Agur armei”), Espainiaren arma-merkataritzan gardentasun handiagoa eta kontrol zorrotzagoa lortzeko ez ezik, armak ugari eta kontrolik gabe dabilzan eremuetan, Espainiako Gobernua armak biltzeko programetan inplikatzeko lortzeko asmoz ere.

2003tik aurrera, hirugarren kanpaina jarri zen abian. Kasu honetan, Amnistia Internazionala, Greenpeace, Intermón-Oxfam, Fundación per la Pau eta IANSA nazioar-

teko koalizioaren laguntza jaso zuen. Kanpainak estatu- eta nazioarte-mailako helburuak lotzen ditu: Espainiako parlamentuak material militarren eta segurtasun-materialaren transferentzia Arautzeko Legea erabaki dezan lortzea; bitartekariak arautzeko neurriak onartzea; gobernuari presioa egitea arma-merkataritzari buruzko Nazioarteko Hitzarmen bat sina dezaten; eta dagoeneko banatuta dauden armak kontrolatzeko eskualde-mailako hitzarmenak indartzea (adibidez, EBren Jokabide Kodea).

15 urtean kanpainak egiten jardun ondoren eta, batez ere, Ikerketa eta Eragin Politikorako lan handiaren ondorioz, 2006ko abenduan, 153 gobernuk Arma Merkataritzari buruzko Nazioarteko Hitzarmena prestatzen hastearen alde bozkatu zuten Nazio Batuen Erakundean. 2008an bertan, Espainian arma-salmentari buruzko lege berria onartu zen.



Proposamen honek gizarte-garapena du ardatz eta, hortik abiatuta, gonbidapena egiten dizue kontzeptu horrek zer adierazten dizuen berriz pentsatzera, zuen errealitatean nola gauzatzeko den ikustera, eta beste pertsona eta talde batzuekin batera, errealitate hori eraldatzeko.



**Bilbo** • Aita Lojendio kalea 2, 2 • 48008 Bilbo • Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938 • [alboanbi@alboan.org](mailto:alboanbi@alboan.org)  
**Iruñea** • Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea • Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308 • [alboanna@alboan.org](mailto:alboanna@alboan.org)  
**Donostia** • Ronda kalea, 4, 4.ezk. • 20001 Donostia • Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267 • [alboangi@alboan.org](mailto:alboangi@alboan.org)  
**Gasteiz** • Monseñor Estenaga 1 • 01002 Gasteiz • Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676 • [alboanar@alboan.org](mailto:alboanar@alboan.org)

[www.alboan.org](http://www.alboan.org)